

APARTURE
Euskadiko Etxebizitza Turistikoen Elkarte
Asociación de Viviendas de Uso Turístico de Euskadi

ONGI ETORRI

by SISTERS AND the CITY



aparture

Euskadiko Etxebizitza Turistikoen Elkarte
Asociación de Viviendas de Uso Turístico de Euskadi



**GIPUZKOA
TURISMOA**



ONGI ETORRI IPARRALDERA



Ongi etorri iparraldera; Ido eta Su gara, Donostiako bi ahizpa eta, gida honen bitartez, lagun izango gaituzue zuen bisitan.

Jakin behar duzuen lehendabiziko gauza da benetako gertaeretan oinarrituta dagoela gidan aurkituko duzuen guztia, eta giro ona eta alaitasuna izango ditugula lagun, zoriotsu izan garen lekuak bakarrik jaso baititugu.



Ongi etorri leku berezi honetara, magiaz beteta eta mendi berdez inguratuta dagoen leku honetara, non milioika hortentsia hazten baita, lore horiek nahiago baitute itzala, eta ur asko behar baitute, eta hori soberan dugu guk. Hemen, urte guztian izaten dugu euria lagun, edozein aldaeratan; kanpotarrei sirimiria gustatzen zaie gehien, euri fin-fina, *a priori* busti ere ez duela egiten eta, zeruko hidratazio modura, larruazala suspertzen duela badirudi ere, hezurretaraino bustitzen gaituena.



Eguraldiak erabakitzen ditu gure planak eta eguneroko martxa. Goizean bero egiten duela ikusten baduzue ere, ez zaitzete fidatu; izan ere, lau urtaroak ikus ditzakezue egunean zehar, eta eguna amaitu baino lehen katiuska beharrean aurki zaitzeteke.




Itsasoaz, olatuez eta itsaso-marradun soineko eta kamisetez sentitzen dugun grina da gure beste ezaugarrietako bat. Batez ere Kantauri itsasoa maite dugu, iraileko edozein arratsaldetan gorputz-peeling bat egiteko gai den itsaso haserre hori.




Mundua amaitzear balego bezala jateko eta edateko dugun gaitasunak ere harrituko zaituzte. Gure teoria da euskaldunok, genetikoki, janari kopuru ikaragarriak inolako arazorik gabe asimilatze gaitasun berezia dugula, baina kanpotik baldin bazatozte, lasai, onar ezazue astebetean lauzpabost kilo gehiagorekin itzuliko zaretela.

Hala eta guztiz ere, ziur gaude alde egiteko ordua iristen zaizuenean, berriro itzultzeko gogoz joango zaretela, Donostiak eta Basque Countryk badaukatelako maitemintzen duen zerbait, lotzen duen zerbait, eta horretan badu zerikusirik mundu osoko edozein bisitari eta bidaiari gure etxe honetan harrotasunez onartzen duen hemengo jendeak.



***Beraz, ez adiorik, ez agurrik,
gero arte baizik!***



AURKIBIDEA

San Sebastián /Donostia

SISAHOLKUAK

BREAKFAST IN THE CITY

PINTXOEN IBILBIDEA

INSTAGRAMERAKO DONOSTIAKO 10 LEKURIK ONENAK

PEDALEI ERAGINEZ ZORIONTSU IZATEKO ARRAZOIAK

ROUTE 25

EXPLORING THE CITY

RUNNING THE CITY

IBILBIDEAK ERDIGUNEAN ETA ALDE ZAHARREAN

IBILBIDEAK GROSEN ETA EGIAN

ANTIGUO ETA IGELDO AUZOETAN IBILALDIA

GASTRONOMIA

DENDAK

BEAUTY

CIUDAD SAN SEBASTIÁN - KATAMARANA

BEGI BISTAN. ESPERIENTZIA EKO-TURISTIKOAK

IGELDO-ORIO

TXAKOLINAREN LURRALDEA

SAGARDOAREN LURRALDEA

ZARAUTZ

GETARIA

HONDARRIBIA

BILBAO

MIARRITZ

AQUARIUM

CITÉ DE L'OCÉAN

OLATUA

Aparture

APARTURE ELKARTEA



To do List



Donostiara baldin bazatuz, eta donostiar jator sentitu nahi baduzu, zerrenda hau kopiatzea eta ezabatuz joatea iradokitzen dizugu:



- "Haizearen Orrazian" eta Paseo Berrian olatuak desafiatzea (agintariak debekatzen ez badute, behintzat).
- Etxetik aterkiarekin eta eguzkitako betaurrekoekin irtetea. Istant batean aldatzen da eguraldia.
- Txakolin bat eta gilda bat hartzea.
- Irailean estropada-igande bat eta Anoetan futbol-egun bat bizi izatea, Reala animatzeko txuri-urdin abestia kantatuz.
- Elkarre gastronomiko batera sartzea.
- Kontxako barandatik ilunabar bat ikusiz hunkitzea eta munduko hiririk onenean zaudela sentitzea.
- Hortentsiak mirestea, horren bertakoak diren, maiatzean loratzen eta urrira arte nabarmentzen diren lore horiek. Eguzki gutxi eta hidratazio ona behar dute, eta zoriontsu dira itsasoaren parean.
- Gogoia duzunean izozki bat jatea, euria zein ekaitza egin, ez baitago geldiaraziko zaituenik.
- Itsasaldiei adi bizitzea, jakiteko noiz dagoen lekua hondartzan eta noiz zeharka dezakezun oinez Kontxa eta Ondarretako hondartzen artean dagoen Loretoea.
- Aste Santua gatzil samarra dela sentitzea, zuri benetan gustatzen zaizuna urtarrilaren 20ko danborradan jotzea baita.
- Sagardotegi-menu batetik bizirik ateratzea.
- Santo Tomas eguna grinaz bizitzea. Txistorra jateko jaia da, eta Donostian urtarrilaren 20ra arte luzatzen diren Eguberriei hasiera ematen dien tradizioa.
- Bizikleta bat hartu eta cityko bidegorrietan barrena ibiltzea, itsaso inguruan pedalei eragiterakoan itsas brisa aurpegian sentituz.
- Alde egiten duzunean, **AGUR DONOSTIA** batekin agurtzea, Donostia deitzen baitiogu hemen kanpoan San Sebastian izenaz ezagunagoa den gure hiri maiteari.

Sis ahol kuak

APLIKAZIOAK

Meteorologiaren inguruan mugitzen da donostiar unibertsoa.

Etengabe begirutzen diogu zeruari, eta eguraldia izaten da hizketa-gai nagusienetako bat, zer eguraldi egiten duen eta nolakoa datorren. Horregatik, funtsezkoa da gure mugikorrean aplikazio bat edukitzea.

Guk **Euskalmet** eta **Windguru** kontsultatzen ditugu egunean hiru bat aldiz, Euskadin eguraldia baita gure planak erabakitzen dituen; eguraldiaren arabera antolatzen dugu agenda.



ATERKIAK ETA TXANKLETAK

Ez zaitetz inoiz fidatu eguneko lehen orduan ikusten duzun eguraldiaz; motxilan aterki tolesgarri bat eta txankletak eramatea gomendatzen dizugu, udako egun bat zirimiri-egun bihur baitaiteke. Baita alderantziz ere. Iparralde honetan, oso


aldakorra da eguraldia, eta lau urtarok igaro daitezke egun bakar batean.



ESTREINA EZAZU HONDARTZA

Izan zaitetz lehena hondarra zapaltzen, eta erabili Kabina-zerbitzua gure hiru hondartzetan: Zurriolan, Kontxan eta Ondarretan.

Gauzak gordetzea, aldatzea eta gero dutxatzea nahi baduzu, **sakatu hemen**, eta armairuen eta zerbitzuen ordutegiari eta prezioei buruzko informazio guztia aurkituko duzu.

 *Informazio gehiago Uda 2020*



ITSASALDIEN APLIKAZIOAK

Izan ezazu beti eskura zure mugikorrean ITSASALDIEI buruzko aplikazioren bat. Etengabe erabiliko duzu itsasgora tokatzen den eta hondartza lepo beteta dagoen, edo itsasbehera tokatzen den eta hondarretan lekua soberan duzun jakiteko.

Itsasgorarekin, eta uda baldin bada, Kontxako hondartzaren aukera baztertzea gomendatzen dizugu, ia desagertu egiten baita, eta Antiguu auzoan dagoen Ondarretako hondartza edo Gros auzoko Zurriolakoa aukeratzea.



PEDALEI ERAGINEZ

Bizikleta da, zalantzarik gabe, hirian aurrera eta atzera ibiltzeko modurik onena. Iritsi berria bazara, bila ezazu bizikletak alokatzen dituzten hurbileneko tokia, eta aloka ezazu bat zure egonaldi osorako. Bizikleten alokairua.



 **Informazio gehiago, hemen**

SANTA KLARA

Hiria beste ikuspuntu batetik ikusteko, har ezazu Santa Klara uhartera doan txalupa, edo Ciudad San Sebastian katamarana. Kontua da lehorra zapaltzeari uztearen eta itsasoan flotatzearen sentsazioa bizi izatea.

GABARROIRIK GABARROI

Bero handiko egun horietako bat tokatzen bazaizu, hartu bainujantzia iluntzean, eta joan zaitetz Kontxako hondartzako gabarroira (itsasbeherarekin hobeto, di-da iritsiko baitzara).. Eta hobeto lagun batekin igeri egiten baduzu; ea nor iristen den lehenengo. Eta irabaziko dizula ikusten baduzu, eutsi bainujantzitik eta jaits iezaiozu, metro batzuk irabaziko dituzu.

Aprobetxa ezazu ilunabarra itsasotik ikusteko, udaletxeko kanpaiak entzuten dituzun bitartean. Itzul zaitetz igerian, gaez.



ZURRIOLA

Zurriolako hondartzan boleibol partidu bat eguna primeran bukatzeko modu paregabea da. Sagueseko hormatik ikus dezakezu ilunabarra; leku mitikoa da donostiarrontzat.

Olatuak nahiago badituzu, Zurriolako da zure hondartza. Aloka itzazu taula eta trajea, eta ez egin zalantzarik: uretara!




KONTXA & ONDARRETA

Ur zalea baldin bazara, baina ez olatu zalea, alokatu piragua bat edo padel-taula bat Kontxako edo Ondarretako hondartzan, eta joan zaitetz arraunean Santa Klara uharteraino. Hango hondartza txikian lehorra zaitetzke, eta uharterko tabernan zerbait hartu.



BREAKFAST IN THE CITY

Oso oso garrantzitsua da eguna energia betean hastea.
Oso gustuko dugu etxetik kanpo gosaltzea.
Hauexek dira gosaltzeko gure tokirik gustukoena, Donostian.



ERDIGUNEAN

OLD TOWN COFFEE

Reyes Catolicos kalea, 6

Kafe eta ogi txigortu oso adiktiboak.
Leku oso TOPa, Artzain Onaren Katedralaren atzean.

IRUBI CAFÉ

Urdeneta kalea, 12

Koldo Mitxelena Kulturunearen parean.

SWEET ROMA

Sánchez Toca, 3

Leku goxo-goxoa, baina arrisku handia duena, oso erakargarriak baitira hango gozo-gauzak.



BOTANIKA KAFE

Gernikako Arbolaren pasealekua, 8

Oasi bat, Donostiako eremu erromantikoaren bihotzean. Gosari goxo-goxoak, % 100 osasungarriak eta 0 Km produktuak. Botanikako terraza ikusgarrian gosaltzea, Urumea ibaiaren parean, landare ederrez inguratuta, galdu ezin duzuen esperientzia erlaxagarria da. Kafetegiaren estetika oso polita da.
Plus bat: gure sister-katiluetan har dezakezu kafea.

KATA 4

Santa Catalina, 4

Terraza ikusgarria.

ALDE ZAHARREAN

MAIATZA

San Vicente kalea, 7

San Bizente elizaren parean, Alde Zaharraren bihotzean.

Gosariak eta brunchak, 08:30etik 13:30era, aukera goxo-goxoekin: txia-budina, ogi txigortua hirugiharrarekin, guakamolea, arrautzak, sandwichak, eta zuku eta irabiatu naturalak.

Tarta, bizkotxo, gaileta, alfajore eta brownie aukera handia. Gure tarta gustukoenen artean, glutenik gabeko labekatutako gazta-tarta eta lemon pie tarta.

IJENTEA KAFEA

Ijentea, 4

Sarreran duen fruta-kioskoa argitasun- eta kolore-etzanda da.



AMARAN

DONOSTEA&COFFE

Arabako parkea 1

GROSEN


ALABAMA CAFÉ

San Frantzisko, 45

Bowl % 100 naturaletan espezialistak.

ENXALAO

Ramón y Cajal, 3



ANTIGUON

BB KAFE

Tolosako hiribidea 25, behea 3

TRIKUA

Antonio Gaztañeta kalea, 4

FUSIÓN BENTA BERRI

Resurrección María de Azkue, 4




Informazio gehiagorako, egin esazu klik kafetegiaren gainean

PINTXOEN IBILBIDEA




Tabernaz taberna ibiltzea eta establezimendu bakoitzean pintxo eta edari batez gozatzea erlijioa da Donostian.

Hartu gogoan esango dizuguna, eta goazen pintxo batzuk jatera.



ALDE ZAHARREAN

BAR MARTÍNEZ:

HEGALUZEZ BETETAKO PIPERRA,
TARTARA SALTSAREKIN ETA
JEREZEKO OLIO-OZPINAREKIN

TXEPETXA:

ANTXOA PINTXOA

NÉSTOR:

PATATA-TORTILLA

TXULETA:

TXULETA-PINTXOA

PACO BUENO:

GANBA GABARDINA ERARA

LA VIÑA:

GAZTA-TARTA

GANBARA:

TXANGURRO-TARTELETA

A FUEGO NEGRO:

MAKOBEBE HANBURGESATXOA

LA CUCHARA DE SAN TELMO:

FOIE PLANTXAN

BORDA BERRI:

RISSOTOA



ERDIGUNEAN

ZAZPI:

BELARRI GISATUA

NARRU:

LUMA IBERIKOA

LA ESPIGA:

MUTURRAK

ANTONIO:

IGELDO PINTXOA

BIARRITZ:

ARROZA SOCARRATEZ

GROSEN

BODEGA DONOSTIARRA:

OSOA

ZABALETA:

PATATA-TORTILLA

BERGARA:

TXALUPA

EZKURRA:

ERRUSIAR ENTSALADA

AMARAN

TXIRRITA:

TXIBIAK

AUKERA:

NEKORA PLANTXAN

XANTI JATETXEA:

URDAIAZPIKO-KROKETATXOAK

CAFÉ 57ETE:

BASERRIKO ARRAUTZA
TENPERATURA TXIKIAN, PATATA-
PUREAREKIN ETA LUMAGORRI
OILASKOAREKIN

EGOKI:

GANBA-BROXETA

CAMPUS:

PATATA-TORTILLA

ANTIGUOAN

LA REBOTIKA:

ARZAK PINTXOA

ANTZARA:

MUSKUILUA

DRINKA:

BAKAILAO-KAUSERA

LA MERA MERA:

IBERIKO QUESADILLA

EL PESCAÍTO DE LA BAHÍA DE CADIZ:

SAREKO ATUNA

EL OCHO:

BARAZKIAK PLANTXAN, PATATA-
PUREZ ETA IDIAZABALEKO
GRATINATUZ



INSTAGRAMERAKO DONOSTIAKO 10 LEKURIK ONENAK



Hauexek dira Donostian argazkirik onenak atera ditzakezuen lekuetako batzuk

1 Santa Klara uhartea

Ontzira zaitetz, eta nabiga ezazu Santa Klara uharteraino. Igo itsasargiraino, eta ingura ezazu uharte osoa, zeharka-meharka dituen itsaslabarretatik.

2 Itsasotik

Aprobetxa ezazu itzulerako bidaia argazkiak ateratzeko, inoiz beste aukerarik izango ez bazenu bezala. Argazki paregabeak eskainiko dizkizute hiriak eta itsasoak.

3 Portua

Leku berezia, eta bizitasunez betea. Txalupak, itsasontziak, arrantzaleak eta terraza benetan atseginak.

Argazkiak editatzeko aplikazio gustukoena: SNAPSEED eta MIRROR IMAGE.

4 Kanpandegi kalea

Murgil zaitetz Alde Zaharrean, eta bilatu kale hau, Portu kalearen gaineko zubira irteteko. Egiatan, tunel bat zen 1813ko sutea baino lehen.

5 Alderdi Eder

Hango lorategiak, karrusela eta udaletxearen eraikina –garai batean Kasinoa izan zena –, eta atzean Kontxako baranda. Argazki-kamera nahi adina kliskatzeko aukera.

6 Zubiak eta Urumea ibai

Goazen zubitik zubira, eta eraman gaitzala ikusmirak.

7 Tabakalera

Eraikin ikusgarria, % 100 erretratagarria. Burua galaraziko dizue bosgarren solairuko terrazak.

8 Aldapetako aldapa

Jaits zaitetz jauregitik Aldapetako aldapan behera, eta egin ezazu geldialditxo bat gomendatzen dizugun spotean.

9 Aieteko jauregia

Hango lorategiak, basoak, beltzargak, liburutegia eta lpuinen Dorrea leku zoragarriak dira edozein urte-sasoitan kliska aritzeko.

10 Miramar jauregiko lorategiak

Arrastian, badiako argiak pizten direnean, ziurtatuta duzu argazki puska ederra. Lorategietatik, jar zaitetz Ondarretara, Loretopera eta Kontxako hondartzara begira. Aurki ezazu begiradarekin eguna hasi duzun lekua eta, amaitzeko, egin iezaiozu argazki polit bat Santa Klara irla alai eta dotoreari.



Jarrai gaitzazu Instagramen!

@sistersandthecity

@sansebastiansisterstyle





1



2



3



4



5



8



6



7



9



10



10

sistersandthecity.com

PEDALEI ERAGINEZ

ZORIONTSU IZATEKO

ARRAZOIAK

Bidegorriak

Arditurri Bide Berdeak

Pedalei eragitea Dibertsioa

Zoriontasuna Merkea

Plazaola Kirola


Ekologikoa Bizikleta


Erosotasuna Askatasuna


Route 25 Osasuna


Garraibidea




 Garraibide super ekologikoa, ke kutsagarrikerik gabea eta oso merkea; ez duzu aparkaleku, gasolina eta segururik ordaindu beharko.

 Hegan egingo bazenu bezala sentituko zara, eta horrek irribarre egin araziko dizu, pedalei eragiteak endorfinen -zoriontasunaren hormonak- jariatzea areagotzen baitu.

 Sasoi onean egongo zara, eta ia esfortzurik egin gabe moldatuko zaizkizu zure zangoak eta iztertxoak.

 Erosotasuna. Zoazen tokian bertan utzi ahal izango duzu bizikleta giltzatuta, oinez baino askoz arinago iritsiko zara, eta takoiekin joan ahal izango zara. Takoiekin pedalei eragitea takoien gainean ibiltzea baino askoz erosoagoa da, benetan.

 Ez da kirola bakarrik, nire garraibidea da. Izan ere, horixe da gure leloa, eta horrenbeste sinesten dugu horretan, ezen behin mezu hori daramaten motxilak egitea otu baitzitzaigun, era horretan BIZIKLETAGANAKO -garraibide gisa- gure MAITASUNA aldarrikatzeko.

ROUTE 25

Bizikleta zale amorratuak izanik, oso pozik gaude zuekin ROUTE 25 partekatu ahal izateagatik.

Hiriko bidegorri guztietan pedalei eragiteko 25 kilometroko ibilbidea, Donostia bizikletatik ezagutzeko paregabea.

Kalapiak eta Donostiako Udaleko Mugikortasun departamentuak taxututako ibilbide zirkularra da, gustukoena duzuen tokian hasi eta bizikletaz ibiltzeko eta pedalei eraginez zoriontsu izateko 25 arrazoirekin amai dezazuen.



Har ezazu bizikleta bat, eta etorri gurekin, gaur pedalei eragitera baikoaz, 1. puntutik abiatuta:

- 1.- Alderdi Eder
- 2.- Boulevard
- 3.- Kontxa

1 GELDIALDIA

- 4.- Miramar Jauregia
- 5.- Ondarreta
- 6.- *Haizearen Orrazia*, Eduardo Chillida
- 7.- Euskal Herriko Unibertsitatearen kanpusa

2 GELDIALDIA

- 8.- Morlanseko tunela
- 9.- Real Sociedad taldearen futbol-estadioa
- 10.- Urumea ibaia

3 GELDIALDIA

- 11.- Kristina-Enea
- 12.- Ametzagaña

4 GELDIALDIA

- 13.- *Siluetak*, Agustín Ibarrola
- 14.- Ategorrietako / *Ate Gorriak* (eskultura)
- 15.- Zurriola

5 GELDIALDIA

- 16.- *Bakearen Usoa*, Néstor Basterretxea
- 17.- Kursaal Jauregia
- 18.- Victoria Eugenia antzokia / Maria Cristina hotela
- 19.- *Eraikuntza Hutsa*, Jorge Oteiza
- 20.- Aquariuma





1



3



4




6



10



11



14



12



16

Geraleku apartak

1. GELDIALDIA
BIARRITZ RESTAURANTE / Zubietza 56

2. GELDIALDIA
LA REBOTIKA / Zarautz hiribidea 6

3. GELDIALDIA
VIA FORA / Federico Garcia Lorca
pasealekua 10

4. GELDIALDIA
LA MOROTXITA / Sagastieder
plaza 18

5. GELDIALDIA
GATXUPA / Usandizaga 17

6. GELDIALDIA
ATARI / Kale Nagusia 18

Informazio gehiagorako, sakatu
☞ tabernen izenaren gainean

BIZIKLETEN ALOKAIRUA

INFORMAZIOA +



7



8



19

Exploring the City



Donostiak maitemindu egiten du, arrazoi asko eta askorengatik.

Hiriaren arkitektura ederra da horietako bat; horregatik, ikaragarri gustatzen zaizkigu **5 arkitektura-ibilbide** proposatzen dizkizuegu.

Aukera ezazu horietako edozein, paseo bat egin eta hiriari horren berezkoa duen izaera hori ematen dion ondareaz gozatzeko; fatxada bereziak, eta argazki ederrak egiteko moduko kolore eta formak aurkituko dituzu zure ibili alaian.

Maitemin zaitetz eraikinek gordetzen dituzten sekretu eta xehetasun txikiez.



Urumea ibaia itsasoratzen den gunetik abiatuz gero, bi eraikin liluragarri aurkituko ditugu: **Maria Cristina hotela (1)** eta **Victoria Eugenia antzokia (2)**. Gure zubi kuttuna gurutzatuta (hantxe daude gure logotipoko farolak), Moneoren **Kursaal** eraikin berrizailera iritsiko gara. Iragana eta etorkizuna ibaiaren alde banatan, Zurriolako zubiak lotuta. Ibaiaren bideari jarraituta, **La Equitativa** eraikinera eta **Frantzia Pasealekuko** txaletetara iritsiko gara. Paseo gomendagarria, udazkenean batez ere, zuhaitzen hosto horixkak nagusitzen diren sasoian.

Ondarreta Antiquo eta Ibaeta



Ondarretako hondartzaren aurrean, txalet bereziak ikus ditzakegu; zona horretako estilo-nahasketak xarma berezia ematen dio inguru horri. Gure paseoan Antiquo auzoan aurrera egiten badugu, ezinbestekoa da **Musikeneren (4)** eraikin berria eta **Carlos Santamaria Zentroa (5)** begiestea. Hiriko egungo arkitekturaren erakusgarri dira eraikinok.





Zaila da aukeratzea, baina nahitaezkoa da abuztuaren **31 kalea** ezagutzea. **Santa Maria eta San Bizente eliza** historikoak ditu mutur banatan, kalea mugarriztatuz, eta kale horretan aurkituko duzue hiriko eraikinik zaharrenetako bat, Trinitate plazarekin izkina egiten duena. Jatorrizko egurrezko egitura du oraindik. Santa Maria eliza bikainaren atean jartzen bazara, Artzain Onaren katedral liraina ikusiko duzu amaieran, pare-parean, hiri osoaren gaineratik ageri den bere kanpandorre neogotikoarekin.



Oinez igo zaitezke itsasargiaren errepidetik, edo autobusa har dezakezu, Igeldo auzoraino joan eta plazan gailentzen den eraikina miresteko; Igeldoko eskola izan zen garai batean. Behin hara iritsita, goza ezazu paseoaz eta dauden bidez.

(Igeldorako autobusen ordutegietarako esteka) 



Donostiatik 10 kilometrora dagoen arren, han dagoen erreboteko frontoiagatik bakarrik (Gipuzkoako bakarra, Billabonakoaz gain), merezi du haraino paseoan joatea. Bizikleta zalea baldin bazara, bidegorritik joan zaitezke Donostiatik Zubietaraino.



Running the City

Donostian korrika egiteko hiru ibilbide



Hiru eskultura

Gustatuko zaitzu:

Izan ere, Donostiako hiru hondartzetatik, Paseo Berritik eta hiriko hiru gune artistikotatik igaroko zara. Gainera, ilunabarrean zeruak hartzen dituen koloreez gozatu ahal izango duzu.

Gomendioak:

Udan, eguneko lehen orduan edo azkenekoan korrika egitea gomendatzen dizugu, pasealeku horretan jendetza ibiltzen baita, donostiarrak zein bisitariak.

Deskribapena:

Donostiar askok egiten du ibilbide hori, bai *runningean* hasiberriak direnek, bai gainerakoek, eguneroko beren ibilbideak egiteko, ez baitago ia batere aldaparik bidean. Argi dago oso ibilbide erakargarria dela edozeinentzako, Donostiako itsasertzetik baitoa bide osoa, eta esan beharrik ez dago benetan dela erakargarria inguru hori. Bestalde, ezaugarri berezi bat du bide horrek, Gipuzkoako izen handiko hiru artistaren hiru lan edo eskultura hartzen baititu erreferentziatzat. Eduardo Chillidaren Haizearen Orrazian hasten da, Jorge Oteizaren Eraikuntza Hutsaren ondotik igarotzen da, eta Nestor Basterretxearen Bakearen Usoan amaitzen.

Edozein puntutatik has daiteke ibilbidea, atzera eta aurrera mugi gaitzkeen lerroa baita.

Ibilbidea:

Haizearen Orrazian hasten da gure proposamena, ibilbide honen lehenengo arte-gunean. Korrika hasi, eta Ondarretako hondartzaren ondotik igaroko gara, Antiguoko tunelera iritsi arte. Loretopearen azpitik gurutzatu, eta Kontxako pasealeku osoa zeharkatzen hasiko gara. Horrela, baranda ezagun osoa zeharkatuko dugu, Kontxako erloju ezagunaren ondotik igaroko gara, eta bidean aurrera egingo dugu, bi eraikin oso bereziren tartetik pasatuz: udaletxea eta Nautikoa. Bi eraikin horiek pasatu ondoren, portura sartu, eta kresal-usain atsegina nabaritzen hasiko gara. Aquariumeraino garamatza bideak, Paseo Berrirako atek irekiko dizkiguna. Kursaal jauregiraino eramango gaitu ibilbideak, non, inertiak bultzatuta, Kursaleko kuboak inguratuko ditugun. Zurriolako hondartzan aurrera, Saguesen amaituko dugu gure korrika-saioa; hantxe egingo dugu topo azkeneko arte-lanarekin: Bakearen Usoa.

6 kilometro hauek egin ondoren, animatuta jarraitzen badugu, itzulerako bidea ere korrika egin dezakegu, eta 12 kilometroak osatu.



Ibilbidea, Donostiako itsasertzetik
- Hiru eskultura -

Distantzia:
→ 6,3 km

Joan-etorria:
↔ 12,6 km

Zailtasuna: Erraza





Urumea deskubrituz

Gustatuko zaizu:

Hiriaren erdigunetik harago doazen leku berriak ezagutuko baitituzu. Urumea ibaia ardatz modura hartuta ari dira Donostia berria antolatzen, eta ibaiak duen balioaz gozatu ahal izango duzu. Baita hiriak dituen arkitektura-estilo ezberdinetako zubiez ere. Klasikoenetatik modernoenetaraino.

Gomendioak:

Har ezazu ibilbide hau erreferentziatza, eta egokitu zeure gaitasunetara. Ibilbide honek aukera ematen digu gure bidea aldatzeko, edozein unetan laburtu baitezakegu, zubia gurutzatuta. Gainera, zirkuitu bat denez, nahi adina aldiz errepika dezakegu.

Deskribapena:

Hiria egituratzen duen ibai nagusia, Urumea, hartzen du ardatzatz ibilbide honek. Eta zubiak daude ibaiaren alde biak batzen dituzten elementutzat. Gustu guztietarako zubiak, gainera, era guztietakoak ikusiko baititugu. Donostia erromantikoa gogoraraziko dizkiguten zubietatik hasi, eta diseinurik modernoena dituztenetaraino.

Donostiaren beste aurpegi bat ezagutzeko aukera emango digu ibilaldiak, deskubritzeko aukera eta espazio ugari ematen dituen beste aurpegi bat. Esan dugun bezala, ibaia eta zubiak dira zirkuitu honen gakoa, eta gure beharren arabera molda dezakegu.

Ibilbidea:

Kursaal jauregian hasten da gure proposamena; ibaiaren barrualdera begira jarriko gara, eta Ramon Maria Lili kalean barrena hasiko gara korrika, Victoria Eugenia antzokia eta Maria Cristina hotela eskuinean utzita. Ibilbidean aurrera jarraituta, Frantzia pasealekuan sartuko gara, eta zuhaitzen artean kamuflatzen diren jauregitxoak ikusiko ditugu han. Zuzen jarraituko diogu bideari, autobus-geltokia eta Maria Cristina zubia igaroko ditugu, Agirre Lehendakariaren zubira iristen garen arte. Gaur egun Real Sociedad deitzen den antzinako Burdinazko zubia izango da gure hurrengo helmuga. Han, biratu, eta Loiolako Erriberak auzora sartuko gara. Hiribide nagusia zeharkatu, eta berriro helduko diogu ibaiaren bideari. Dagoeneko egin dugu ibilbidearen erdia, eta itzulbideari ekingo diogu, baina ibaiaren beste aldetik. Horrela, bada, Bizkaia eta Gernika pasealekuen ondotik pasatuko gara, etxeen arkitektura modernistaz gozatuz. Ibaiaren ertzetik egingo dugu aurrera gure bidean, berriro Kursaalera zubira iritsi arte.

Horrela, zirkuitua osatuko dugu; norbere esku dago korrika jarraitzea eta beste bueltaren bat egitea.



Ibilbidea ikusteko, egin klik hemen

Urumea ibaia deskubrituz

Distantzia:

→ 6 km

Joan-etorria:

→ 12km

Zailtasuna: Erraza



Gustatuko zaitzu:

Pasaia udalerrian sartuko baikara. Arrantza-ingurua da, iraganeko jarduera eta esentzia bizimodu berriekin nahasten dituen.

Gomendioak:

Merezi du Pasaiarako iritsieraren amaieran Pasaiaren alde batetik bestera ibiltzen den txalupatxoak ikustea. Hau da, Pasai San Pedro eta Pasai Donibane artean.



(Txaluparen ordutegiak eskuratzeko esteka)

Deskribapena:

Kilometro gutxi batzuk eginda, Pasaia udalerria bisitatzeko aukera emango digu ibilbide honek. Espaloitik egingo dugu bidearen zati handi bat eta, beraz, oso erraz iritsiko gara gure helmugara. Kontuan izan behar da malda pixka bat duela ibilbidearen lehenengo zatiak, baina ez igotzeko batere zaila. Nahikoa izango dugu gure erritmoari eustea. Izan ezazue kontuan Behobia-Donostia lasterketa ezagun eta jendetsuaren azkeneko kilometroekin bat egiten duela ibilbide honen tarte batek.



Ibilbidea:

Zurriolako hondartzan hasi, eta Pasaia aldera abiatuko gara. Horretarako, hondartza osoa gurutzatuko dugu, Nafarroa hiribidearekin izkina egiten duen elizarekin topo egiten dugun arte. Bidean aurrera jarraituko dugu, Ategorrieta Hiribidean sartu arte. Intuizioari jarraituz egin dezakegu bidea, zuzen samarra baita, eta leku bereziak ikusiko ditugu gure joanean, hala nola Arzak jatetxea eta La Asuncion ikastetxea. Orain, jaisten hasiko gara, Trintxerperaino; horrek markatuko digu Pasaiarako sarrera. Bide horretan, Pasaia portua ikus dezakegu, Gipuzkoako jarduera handieneko portua. Bidean aurrera jarraitzen badugu, San Pedro elizak adieraziko digu non biratu behar dugun, gure ibilbidearen amaiera arte jarraitzeko. Puntu horretan, Pasai San Pedro eta Pasai Donibane aurrez aurre ditugula ohartuko gara. Eta bien artean, urte luzez batetik bestera igarotzeko modua eskaintzen ari den txalupatxoak.

Dagoeneko bost kilometro egin dugu, eta itzultzeko bide bera egitea proposatzen dugu. Horrela, 10 kilometroko saioa osatuko dugu.



Donostia_Pasaia

Distantzia:

→ 5,22 km

Joan-etorria:

↔ 10,44 km

Zailtasuna: Ertaina

Ibilbidea ikusteko, egin klik hemen



Bizitasun handia du Donostiako erdiguneak; **San Martin azokan edo Bretxakoan** erostea benetako luxua da, eta donostiar gehienok aprobeztatzen dugu aukera hori, ahal dugun aldiro.

Has ezazu eguna kafetxo batekin, **Reyes Catolicos** kaleko edozein terrazatan; hantxe bertan duzu bizikletak alokatzeko denda bat: **La Bicicleta**. Har ezazu bat eta mugitu zaitetz bizikletaz.

Bisita ezazu **Artzain Onaren katedrala** (Donostiako gure Empire State); zuzen-zuzen begiratuta, gure elizarik gogokoenetako beste bat ikusiko duzu, Alde Zaharrean: **Santa Maria basilika**. Oraingoz, baina, erdigunean geldituko gara, leku interesgarri mordoia baitago.

Shopping pixka batekin hasiko gara **Koko Deko** dendan; gauza politez beteta dago, ideala da, eta gure *tote bag* bat eros dezakezu han. **Maria Kala's** dendara joango gara ondoren; etxerako osagarriak saltzen dituzte, baita gure sister-katiluak eta giltzatakaok ere. Gero, joan zaitetz **Calzados Tello, Zubiri, Berriz, Mónica Ochotorena, Minük, Domitila, Sketch, Life Concept, Kaotiko eta Arbelaitz** dendetara.

Indarberritzeko, kafe bat eta gozo-gauzaren bat, Sweet Roman. Gazia nahiago baduzu, Old Town Coffe gomendatzen dizugu. Zoriontsu izateko ezinbestekoa, Kafe Botanika eta bere terraza zoragarria, leku berezia benetan, ibaiaren ondoan, gosaltzeko, bazkaltzeko edo afaltzeko paregabea.

Mokadutxo goxo bat jan nahi baduzu, **Narru** duzu Katedralaren parean, **La Cochinita Pibil, Zazpi, Cortazar eta Taberna de Blas**. Maria Cristina Hotelaren parean dagoen **Kata 4** eta ibaiaren parean duen terraza ere ezin dituzu ezagutu gabe utzi. Bazkaltzeko edo afaltzeko, **Bernardoetxea** eta **Antonio jatetxea**; modu informalean zerbait jatea nahi baduzu, berriz, **Ekeko** eta **Mamma Mia** pizzeria.

Kontxako hondartzaren parean, berriz, Biarritz jatetxearen terraza bisitatzea ere, ezinbestekoa.

Eramateko etxeko janaria nahiago baduzu, **La Perola**.





ALDE ZAHARRA

ALDE ZAHARREAN, benetan gozatuko duzu **Polkan, Atarin, Urolan**, eta Konstituzio plazako **148 gastrolekun** jaten baduzu.

Pintxo gogoa baldin baduzu, ezinbestekoak dira **Bar Martinez, Ganbara, Txepetxa, Paco Bueno**, eta **Nestor** tabernako tortilla-pintxoak.

Gozo-gauzaren bat edo zerbait gazia **Maiatzan** eta, ondoren, joan zaitez oinez **Urgull mendira, Polvorin** tabernaraino hain zuzen ere, Donostiako tabernarik bereziena, terraza atsegin batekin, eta erotzeko moduko bistekin.

Afaria edo mokadu batzuk, **PORTUKO** jatatxe idilikoetako edozeinetan: **Itzalian, Sebastian, Igeldo**.

Ez ezazu galdu arrats apala, **Gu** diskotekako terrazan. Botere tele-garraiatailedun gure suster-produktuetako bat eramán nahi baduzu, joan zaitez Kale Nagusiko 14. zenbakian dagoen **Alderdi Zahar Lorera**.

A, eta gogora ezazu, ezin duzu alde egin Donosti Bayrik gabe, ukitze hutsarekin Donostiara tele-garraiaturako zaituena; beraz, pasa zaitez **Casa Munoa bitxi-dendatik**, eta eskura ezazu.



GU SANSEBASTIÁN





Gros da Donostian boladan dauden auzoetako bat, hango taberna eta jatetxe atseginei, surf egiteko paregabea den hondartzari, komertzioei eta,

Saguesen, hondartzaren amaieran, ikus daitezkeen arrats apalei esker.


Zurriolako zubia zeharkatu orduko, bi kubok egingo dizute harrera, hots, **Kursaaleko Kongresu Jauregiak**; huraxe da gure Nazioarteko Zinema Jaialdi gustukoenaren, **Zinemaldiaren**, egoitza.

Hantxe dago **Ni Neu** taberna-jatetxea; bene-benetan gomendatzen dizugu jatetxeko terraza, eguneko edozein unetarako. **Zurriolako** hondartza paregabea da uretan sartu eta olatuak harrapatzeko. Surf-eskola ugari aurkituko duzu, materialak alokatzen eta irakasleak eskaintzen dituztenak.

Hawaii da klasiko bat.

Kiromasaje- edo estetika-zentro bat, eta mundutik deskonektatzeko leku bat, ez egin zalantzarik: **YO Salud Estetica**.

Hondartzaren amaieran, **Sagues** dago, donostiar era peto-petoan, horman eseri eta eskuan garagardo bat hartuta, arrats apal zoragarri batez gozatzeko leku ideala, ilunabarrean olatuen gainean dantzan dabiltzan ehunka surflariri begira. Ikuskizun ederra, benetan. Ezinezkoa egingo zaizu argazkirik atera gabe geratzea; itxi itzazu begiak, hartu arnasa, busti zaitetz kresalez, eta graba ezazu memorian une hori, inspirazioa behar duzunerako.





Handik hurbil dago **Ulía mendia**, paseo polit bat egiteko leku bikaina. Hasierako zatia da okerrrena, beraz, ez ezazu hitzik egin, eta gorde indarrak zure kamera atera eta milaka argazki egiteko hiriko bistarik oneneko lekuetako bat den horretara iristen zarenean, zure kamera atera eta milaka argazki egiteko. Negar egin araziko dizu zoriontasunak.

Egunari energiaz ekiteko **la Guinda**, **Norta Beach House** eta **Alabama Café** gomendatzen dizkizugu.

Grosen bazkaltzeko, **Casa 887**, **Gatxupa** eta **Galerna** iradokitzen dizkizugu.

Zabaleta kalean, **Matalauvan** has zaitezke, ondoren **Bar Bergara** taberna mitikora joan, gero tortilla-pintxo bat jan dezakezu **Zabaleta tabernan**, eta garagardo bat **Mala Gissona** tabernan. Gin Tonic on bat edan nahi baduzu, zoriontsu sentituko zara **Gintoneria Donostiarran** eta **Teoreman**.

Peña eta Goñi oinezkoentzako kalean dago, Kursaal jauregiaren ondo-ondoan, gure gogokoenetako bat: **La Bodega Donostiarrak**.

Dendei dagokienez, bizikletak eta maiteminduko zaituzten osagarriak aurkituko dituzu **Miner** dendan, eta **La Central** denda ikusgarrian, berriz, gizon zein emakumeentzako arropa, marka bikainekin.

Joan zaitez **Pas si simple**, **Molupita** eta **Carbonarara**.

EGIA

Gros auzoarekin mugan dago Egia; auzo bizi-bizia hori ere. Hantxe dago **Tabakalera**, jarduera ugari eskaintzen duen kultura garaiakideko zentroa.

Tabakalera barruan, ezinbestekoa da Arte-galeria eta Concept Store bat bisitatzea: **Arteuparte**. Ikaragarri gustatzen zaigu.

Bisita hori egin ondoren, igo zaitez **LABe** jatetxearen terrazara; zerbait jan edo edan dezakezu han. Bazkaltzeko, asko gustatzen zaigu **Aho-mihi**. Egiatik alde egin aurretik, egin ezazu osteratxo bat gure parke gogokoenetako batera, **Cristina Eneara**. Murgil zaitez parke horretan, eta gozatu naturaz, indioilarrez eta, koadrodun mahai-zapi bat eta ogitarteko bat eramaten badituzu, egin ezazu **picnic** bat.



CASA 887





Donostiako auzorik dotoreenetakoa da Antiguo. **Miramar Jauregiko** lorategietatik zehar iristea gomendatzen dizugu, miresgarriak baitira handik dauden bistak eta ingurunea. Eguraldi ona egiten badu, jaitsi zaitez, eta hartu bainu bat Ondarretako hondartzan; hiriko handientsuena da, kolorea eta bizitasuna ematen dioten bere karpa txuri-urdinekin.

Bisita ezazu txoratzen gaituen denda bat, **Anhelo**: goi-mailako bisuteria, burugainekoak, osagarriak eta lurrinak. Erosketekin jarraitzeko: **La Petite, Laukka, Petit Comité, Kor'Est oinetako-denda**.

Taberna eta jatetxe erakargarrien zonei dagokienez, **Matia** kalea gomendatzen dizugu; ideala da goitik behera ibili eta hango giro paregabeaz gozatzeko. **Antzara** eta **Mera Mera** mexikarra nabarmendu behar ditugu.

Aurreraxeago dago beste zona bat, **Benta Berrin**; apustu seguruak dira **La Rebotika, Kukuarri** eta **el Pescaito de la bahia de Cadiz, Mogambo** eta **Lobo Jose Maria Sert plazan**. Kafetxo bat hartzeko edo gosari on bat egiteko, **BB Kafe, Fusion Benta Berri eta Trikuu**.

Zona honetara iritsi bazara, bi eraikin liluragarri erreparatzea gomendatzen dizugu: **MUSIKENE** eta **Carlos Santamaria zentroa**.

Hondartzaren mendebaldeko muturrean, leku magiko bat dago, olatuek jauzi egin eta haizea orrazten duten lekua. Hiria amaitzen eta itsasoa hasten den lekua; **Eduardo Chillidaren** altzairuzko eskulturrei esker, donostiarren txorikrik gustukoenetakoa da: **HAIZEAREN ORRATZAZ** ari gara. Tenis Klubarenatzean, berriz, **Funikularra** dago, benetako ikonoa Donostian. Hiria lehen aldiz zapaltzen duen edonork egin beharko luke funikularrean bidaiatxo bat. 100 urte baino gehiagoko historia du, eta botere gaztetzailak dituen beste leku batera eramango zaitu, **Igeldoko Jolas Parkera**. Egin ezazu geldialditxo bat **Monte Igeldo Hoteleko Wine Bistrot Belle Epoque** tabernan; munduko bistarik ederrenak dituzu handik.





TXINGARRAK, TABERNA ETA DENDA

Ikaragarri gustatzen zaigun lokala, txingarretan prestatutako espezialitateengatik: tortillak, arrozak, barazkiak, olagarroa, txuletoa eta % 100 Asteasuko txahal-haragiz egindako hanburgesak, beste gauza zoragarri askoren artean.

Egun eguzkitsuetan, duen terraza bikainean bazkal dezakezu.
Kalitatezko menua eta eguneko platerak ditu.

La Rebotikak zaindu egiten zaitu; janari osasungarria, kalitatezkoa, glutamatorik gabekoa, erantsitako saltsarik gabea, beganoentzako aukerak, 0 Km jakiak eta Glutenik gabek aurkituko dituzu.

*Zeliakoentzako moduko jatetxea, EZE ziurtagiria duena, Euskadiko Zeliakoen Elkartearen eskutik.

*Arzak pintxoaren irabazleak, bertsio tradizionalean (zeliakoentzako ere egokia).

*Edenred jatetxe-tiketa.

*Beganoentzako aukerak



EGUNEKO MENUA

Zeuk erabaki: Menu osoa (15 €)
edo Menu erdia (11,50 €).
Plater bat eta azken-burukoa, 8,50 €

Eta nahiago baduzu etxean edo hondartzan jatea, **eramateko janaria** prestatzen dute.

ERAMATEKO

 KONTSULTATU WEBGUNEAN



*** Plus bat: Dekorazioa eta gure sister-produktuak.**



DENDA

Prestatzen dituzten produkturik gehienak dituzte salgai: oilaskoa txingarretan eginda, txerri-saihetsa, txingarretan prestatutako beste espezialitate asko, gaztak eta etxean egindako azken-burukoak.

Bestelako produktuak ere eros ditzakezu, hala nola gure giltzatakoak eta *Sisters and the city* koadernoak.



LA REBOTIKA
BRASA BAR&DENDA

 ERRESERBATU

LA REBOTIKA

Zarautz 6



larebotika.com



@la_rebotika



@LaRebotikaDonostia



La Perola, eramateko etxeko jakiak

La Perolan betiko errezetak berreskuratzen ditugu, modu tradizionalan prestatutakoak, etxean bezala jateko ohitura zoragarria berreskura dezazun.

Etxeko bihotzetik, eramateko prest...

Ahaztuz zaitez janaria prestatzeaz, baina jan ezazu ondo.

Janari osasungarria, goxoa eta naturala, mantenu gaiak, kalitatea, jatorria eta gure sukaldereinoko bidai laburra zaintzen eta errespetatzen dituena.

Aukeraketa zorrotz horretan, maitasun, pazientzia eta denbora nahasketa horretan baitago gakoa, lapikoko errezetek beti egin izan duten bezala elika gaitzaten.

Eramateko prest aurkituko dituzun zapoeren lekua da La Perola, zure memoriaren parte diren, ahazteko zorian zeunden eta hemen birkonkistatu ditugun zapoeren lekua, janari ona, goxoa eta benetakoa jatera itzul zaitezzen... etxeko janaria jatera itzul zaitezzen. Betikoa.

On egin!



LA PEROLA

San Martzial kalea 52



laperoladonostia.com



@laperoladonostia



@laperoladonosti



Bar Martínez 1942tik

Abuztuaren 31 klean dago Martínez taberna, Donostiako Alde Zaharreko pintxo-kalerik ezagunenetako batean, eta 78 urte baino gehiagoko historia duen klasiko bat da Bar Martínez.

Taberna atsegina da, betiko familia-negozio horietakoa, Donostiako pintxoetan aitzindaria; 40ko hamarraldian hasi ziren ohiko Gilda zerbitzatzen, baina badituzte oso bestelako pintxoak ere, hala nola *hegaluzez betetako piperrak, saltsa tartariarrekin eta jerezeko olio-ozpinez*, seguruenik hiriko pintxorik onena.

Tradizioaren eta berrikuntzaren arteko uztarketaren eredu bikaina.


Errazioak, pintxoak, broxetak, ogitartekoak eta ardo-karta zabala, zuen ahoak goxatuko dituztenak.

9 metroko barra du, zuen begietarako benetako ikuskizuna, Donostian ezinbestean bisitatu beharreko pintxo eta errazio tabernetako bat.

“Etxean egindakoaren” filosofiaren defendatzaile sutsuak.

Beraien sekretua, lehengai onak, proposamen goxoak eta maitasun-dosia.



Gorde lekua eta ordua orain, eta bisitatu lasai gure taberna
 **ONLINE ERRESERBAK**

BAR MARTINEZ
Abuztuaren 31 kalea 13



+34 943 42 49 65



barmartinezdonosti.com



@barmartinezdonosti1942



@Bar_Martinez



POLKA. TASKA & COCKTAILS

Taberna moderna da Polka, ukitu doilor eta dibertigarria duena; gure herrialdeko zein beste herrialde batzuetako ohiko errezetak aurkituko dituzu, baina bestelako ukitu batekin. Askok gustatzen zaizkigu gustu guztietarako pentsatuta dauden haien koktel proposamenak; hala nola sagardoeko eta txakolinezko Donostiar Urak, lagunartean edateko aproposak.

Gure gustukoaren artean daude "Pelatinta" txapiroiak, beren tintan gisatutakoak, eta **Polka Errusiarrak**, batataz eta mendreskaz prestatutako entsaladilla, hiriko onenetakoa.

Batzuk natxoaren zale amorratuak gara, mexikar plateraren interpretazio berezia, bizkaitar erako saltsaz, ajoarrieroz, piperrez eta Tolosako babarrunez zerbitzatzen dituztenak.

Ezinbestekoa da **T-Bone steaka** dastatzea, kiloko entrekot eta azpizun zatia, patatekin eta entsaladarekin zerbitzatuta.

Polkako gure lagunei ikaragarri gustatzen zaizkie gau-jaiak. Haien helburua da jendeak gozatzea eta ondo pasatzea; horregatik, egin iezaguzu kasu, eta ez itzazu galdu haien proposamen dibertigarriak: **bermut-paella igandetan; Polkero platera astean zehar eta, noizean behin, kontzerturen bat, tabernak duen terraza eder horretan, berogailu eta guzti.**

Gora POLKA!



BATEZ BESTEKO PREZIOA: 25€



POLKA. TASKA & COCKTAILS

Sarriegi plaza 8

 ONLINE ERRESERBAK



@polkasansebastian

@polkasansebastian

GASTROLEKU



Informazio gehiago: gastroleku.com

 **ONLINE ERRESERBAK**

Gastroleku Taldea Donostiako Alde Zaharrean sortutako ostalaritza-talde berritzailea da, tradizioa defendatzen duena, eta euskal kulturarekiko eta gure herentzia gastronomikoarekiko errespetu handia duena.

Gastrolekuak apustu segurua dira; horregatik, ez dira inoiz falta gure gomendioetan. Kalitatezko lehengaiak, sasoiari sasoiko produktuak, 0 km produktuak, arreta bikaina, etengabeko berrikuntza eta lokal oso atseginak dira, besteak beste, gastrolekuen ezaugarri bereizgarriak.

Lokal horietako edozeinetara bisita bakarra egitea nahikoa izango duzu, benetako GASTROLEKU LOVER bihur zaitez.

ATARI

Taldeko anaia zaharrena da gure lekuri gustukoenetako.

Bermutaren ordua eta arratsaldeko lehenengo kañen ordua dira lokal hori bisitatzeko gure unerik gogokoenak.


Santa Maria Basilikara begira duen terrazan lekua harrapatzea da gure plazer txiki horietako bat; urte osoan goza dezakegu, gainera, berogailuak baitaude terrazan. Kalitatezko lehengaiak, zerbitzu ona eta pintxoz betetako barra bikaina.

Marradun oihalezko mahai-zapien oso zale gara.



— SISAHOLKUA —

Ez ezazu alde egin olagarro edo izokin errazio bat probatu gabe, duen barra ikusgarrian aurkituko dituzan pintxoetako edozein pikatu gabe edo, amaitzeko, bere torrada ezaguna jan gabe, ardo gozo batekin batera.



atari



ONLINE ERRESERBAK

Kale Nagusia 18



@atarigastroleku



@atarigastroleku



148gastroleku

Lihoa eta mahai-oihalak gure ekonomiaren eta kultura gastronomikoaren oinarriak izan dira; horregatik dira 148gastroleku lokaleko dekorazioaren "osagai" nagusia, euskal kultura omenduz.

Alderdi gastronomikoari dagokionez, bereziki duala da, asko arriskatzen da errezeta batzuetan (atuna foie-arekin), eta erabat tradizionala eta kontserbadorea da beste batzuetan (arrain-pastela).

Josper labea nabarmendu behar dugu, baita duen lantalde bikaina eta musika ere (80ko rock and rolla, nazionala eta nazioartekoa). Konstituzio plazan bertan duen terraza pribilegiatuaren zale amorratuak gara.

Kalitate-prezio erlazio bikaina.

— SISAHOLKUA —

Egin erreserba terrazan, eta eskatu arrain-pastela, olagarro errazioa eta txuleta partekatzeko. Eta, horrekin batera, ardo on bat. Zoriontasun gorena.



148
gastroleku



ONLINE ERRESERBAK



Iñigo kalea 1



@148gastroleku



@148gastroleku

TXALUPA

Txalupetan, bakailoa arrantzatzen eta baleak harrapatzen zituzten euskal baleazaleek.

Lokal honetako barra marinela eta itsasontzi haienganako omenaldia da.

Txalupa Gastrolekuan errezeta klasikoak berridazten dira, euskaldunen gaur egungo ahoetara egokituz.

Musika da bere diskurtsoaren alderdi garrantzitsuetako bat; bi "kabina" daude, solairu bakoitzean bana, bermutaren ordua eta gauak girotzeko.

Solairu nagusian dagoen ateetako batetik, *speakeasy* garaikide batera sartzen da, afalorduaren ondoren taberna bihurtzen dena, ezinbesteko *nightcluba* gure bizitzetan.

Bi espazio horietako edozeinetarako egin dezakezu erreserba.



SISAHOLKUA


Ganboiak txingarretan; landare-kroketak; kukuluak txingarretan, gratinatuta, bakailoarekin; txotx sagardotegiko azken-burukoa, eta kopak Tx Klubean.




 ONLINE ERRESERBAK

Fermín Calbetón 3



 @txalupagastroleku

 @txalupagastroleku



GU SAN SEBASTIÁN

Ospakizun edo ekitaldietarako gure lekurik gustukoena.

Erabateko arrakasta izan dute han egin ditugun guztiek. GU lokaleko lantalde osoaren tratua eta profesionaltasunak dena errazten dizu.

Ospakizunen bat antolatzeko asmoa baldin baduzu, jar zaitez oiraintxe bertan haiekin harremanetan.

Itsasontzi honek popan duen terrazan, gure hiriak eskaintzen dizkigun ikuskizun onenetako batez gozatuko duzu: ilunabar zoragarriez, GU lokaleko koktel eder batekin; "must in the city".

Koktel-karta zabala eta askotarikoa.

SISAHOLKUA

Dantzatzeko gogoz baldin bazaude, Gu lokaleko gauak Donostiako place to be bat dira.



 ONLINE ERRESERBAK

Alderdi Eder Parkea 1



 @gusansebastian

 @gusansebastian

Donostia erdi-erdian, Arrasate kaleko 27. zenbakian, bisitatu beharreko denda txundigarri bat dago.

50 urte baino gehiagoko esperientziarekin eta 800 laguneko lantaldearekin, urtean milioi bat oinetako baino gehiago ekoizten dute.

Larruzkoak dira oinetako guztiak, eta ERRIOXAN fabrikatutakoak.

Orain dela 20 urte, denda fisikorik gabe hasi zen marka bikain hau.

Gaur egun, ondo bereizitako hiru marka dituzte: ART, el NATURALISTA eta NEOSENS.

Gainera, osagarri oso politak ere aurki ditzakezu, hala nola diseinu eder eta koloretsuko motxilak.



ART

Haxe da marka aitzindaria, alternatiboena, kolore ugari erabiltzen du, eta markarik modernoena da.

EL NATURALISTA

Naturan inspiratutako oinetakoak, ingurumenarekin konprometituta dauden pertsonentzako. Marka oso berritzailea eta ezberdina. Oinetako beganoak ere aurkituko dituzue. Oso bereziak dira zolak, eta ikaragarri gustatzen zaizkigu. Kautxuz eta molusku-hondakinez eginda daude eta habiak, sumendiak, zuhaitz-azala, hostoak... simulatzen dituzte.

NEOSENS

Etzeko marka mimatuena. Donostiar petoena dela esango genuke. Diseinua, artisautza eta erosotasuna, marka bakarrean batuta. Erabat eskuz egindako oinetakoak dira, *premium* larruekin eta haritz-egurrezko takoiekin.



Egin itzazu zoriontsu zure oinak, eta etor zaitez oinetako-denda ikusgarri honetara; gizon, emakume zein haurrentzako oinetakoak aurkituko dituzu.



LIFE CONCEPT LIVING SHOE STORE
Arrasate kalea 27 20.005 DONOSTIA



KAOTIKO

Duela gutxi ireki dute denda hau Donostian, eta iraultza ekarri du Askatasunaren Hiribidera, duen zinezkotasun- eta alaitasun-etzandagatik.

1999an sortu zen Kaotiko Bartzelonan, misio argi batekin: moda kalera hurbiltzea, bizitza-estilo fresko, benetako eta pertsonala duen jende-komunitatea bat sortuz.

Harrezkero, bertako ekoizpenaren aldeko apustua egiten du, eta Mataron, Granadan, Elchen eta beste hainbat hiritan ditu lantegiak, bidezko eta hurbileko merkataritzaren filosofiari helduz.

Bere marka propioaz gain, beste batzuk ere aurki ditzakezu, hala nola *Patagonia, Thrasher, Carhartt, The North Face, HUF, Dickies...*

Kirol-jertseak, kamisetak, galtzak, jakak, motxilak, erlojuak...

Gizon zein emakumeentzako bildumak, modaren aldeko apustu irmoa egiten dutenak bildumak, Genderless -generorik gabeko arropa- modaren aldeko, bakoitzak benetan ondo ematen diona eta gustatzen zaiona jantz dezan.

Teva, Adidas, CAT, Vans eta Converse oinetakoak.



kaotiko

KAOTIKO

Askatasunaren Hiribidea 18

kaotikobcn.com



@kaotiko_BCN



@kaotikobcn

helmet house

CONCEPT STORE

**BIZI ITZAZU GUREKIN ESPERIENTZIA BEREZIAK.
ZAUDEN TOKIRA JOANGO GARA.**



*Helmet House-ek bi zerbitzu pertsonalizatu eskaintzen dizkizu:
Yoga + Gorputz-adimena eta Ekitaldien Antolaketa*

Pasioz eta bihotzetik egiten ditugun bi esperientzia eta zerbitzu, etxean bezala senti zaitezten eta Euskadiko zure egonaldia bidai ahaztezina izan dadin.

 *Baina hori baino askoz gehiago da Helmet House. Deskubritu nahi al duzu?*

Yoga + Gorputz-adimena

Etxetik kanpo egon arren, praktikatzen jarraitu nahi duzu?
Guk lagunduko dizugu, zurekin gaude



Ekitaldiak

Ospatzeko zerbait al duzu?

Ospakizun hori zerbait berezia izan dadin lortuko dugu, zentzumen guztiekin goatzeko esperientzia bihurtuko duen *ukitu emozional eta ezberdin* hori emango diogu.



HELMET HOUSE
 Blas Etxebarria 1, behea
 20600 – Eibar



hello@helmethouse.es

helmethouse.es

@helmethousestore

@helmethousestore

ARTEUPARTE, ARTE-GALERIA BAINA ASKOZ ERE GEHIAGO

ARTEUPARTE arte-proiektuak sortzeko eta horien komisario-lanak egiteko espazio/ plataforma independentea, arte-galeria eta estudio grafikoa da.

Beraiek dioten bezala, egiatan, gustuko dituzten gauzak egiten dituzte, inolako loturarik gabe.

Tabakalera dago, eta estudio grafiko batez, arte-galeria batez eta ehungintzako txoko batez osatuta dago espazioa, modu independentean, bata bestearen ondoan, baina batasun-lotura batekin: **artearekiko pasioa eta maitasuna.**

Gainera, arte-proiektuak eta horien komisario-lanak egiten dituzte.

Haien CONCEPT STORE kontzeptu txokoan, kontu handiz hautatutako janzkiak aurkituko dituzu, hala nola alkandora zoragarriak, jertseak, anorakak, estilo handiko kamisetak... Ekoizpen jasagarriak eta bertakoak, material organikoak eta edizio mugatuak.

Getariatik Iparraldera, Donostiatik Bartzelonara, Parisetik Birminghamera, Kopenhagetik Madrilera.

Batez ere jatorrizko lanekin, inguruko artista bakoitzak sinatutako edizio mugatuekin eta aspalditik jarraitzen dituzten artisten lanekin lan egiten dute ARTEUPARTEn.

Gustu eta poltsiko guztietarako bildumazaletasuna.


Toki zein nazio-mailako artisten pieza bereziak.

Paul eta Iñakiren bizitzan, haien misioa da gustatzen eta hunkitzen dituzten arlo grafiko eta piktorikoko bertako zein nazio- eta nazioarte-mailako goraka doazen bertako artisten balioa eta lana ezagutzera ematea da, eta haiekin proiektuak egitea eta arte-diziplina ezberdinen artean sinergiak sortzea.

Haien erakusketak bisitatzea, duten kontzeptu-txoko bikaina ezagutzera edo espazioan osteratxo bat egitea nahi baduzu, hemen aurkituko dituzu:



ARTEUPARTE hitz-joko bat da:
ARTE GORA ARTEA
(ingeleseko ARTE UP ARTE)



ARTEUPARTE.
STUDIO | STORE | GALLERY | MAGAZINE

ARTEUPARTE

Tabakalera KGNZko Patioan
Andre Zigarrogileen plaza 1



@arteuparte



@arteuparte



ONLINE DENDA

minük

C/ Elcano 7
Donosti- San Sebastian

Minük denda berezia da, Donostiako erdigunean bertan dago, eta nazioarteko moda-marka hautuak ditu.

Eskandinaviar eta frantziar modarik berriena konbinatzen espezialistak dira, nortasun propioko estilismoak sortzeko.

Kalitate handiko oihalak, linea ateporalak, egun berezietarako janzki sofistikatuak eta egunerokorako "casual" estiloko janzkiak.

Sessùn, Samsøe Samsøe, Leon & Harper, Maison Anje, Gême galerie, Leon Stories (ezinezkoa da lentzeria-marka honetaz ez maitemintzea) eta *Vagabond* (oinetakoak) dira, haien orijinaltasun eta kalitateagatik nabarmentzen diren markak.



PLUS BAT: TRATU PROFESIONAL ETA PERTSONALIZATUA.

Gainera, zure ezkontza antolatzen ari bazara, denboraldi honetan berriro izango du Minük *Sessùn Oui* emaztegaietzako linea, bere egunean eksklusibotasun plus bat eta erromantikotasuna bilatzen dituen eta konbentzionala ez den emaztegaiarentzat ideala.



MINÜK
Elcano kalea 7



@minukdonosti

@minukdonosti

YO. SALUD ESTÉTICA

Zentro bat baino zerbait gehiago den kiromasaje eta estetika zentro bat bilatzen ari bazara, maitasunez tratatuko zaituzten leku profesional bat, behin eta berriz itzuli nahiko duzuna, zeure etxean bezala sentiaraziko zaituztena, utzi bilatzeari. Aurkitu dizugu.

Gros auzoaren erdi-erdian, Bermingham kaleko 8. zenbakiko eskailerak jaitsita, hantxe dago erlaxaziorako, osasunerako eta ongizaterako benetako paradisia.

Xehetasun guztiak zaintzen ditu Kiromasajista, Estetizista, Osteopata eta Fisioterapeutaz osatutako lantalde honek.

ARRAKASTA HANDIENeko TRATAMENDUAK



1. ZEUK AUKERATUTAKO MASAJEA

Oin-erreflexologia eta gorputz osoko masajea erlaxazio-sinergiaz eta olio-kartarekin, zeure nahierara (balsamikoa, erlaxagarria, hidratatzailea, detox, laranja eta limoia).

ERLAXAGARRIA

Teknika erlaxagarria, mugimendu geldo eta suabeekin.

(Ordu eta erdi)

KONTRAKTURAK KENTZEKOA.

Tentsioak liberatzen ditu, gorputza erlaxatzen du eta artikulazioen mugimendua berreskuratzen du.

(Ordubete eta 15 minutu)

KIROL-MASAJEA

Muskulu-espasmoak arindu, atxikidurak deskonposatu eta muskuluen berroneratze-prozesua azkartzen du.

(30 minutu)

2. BIZKARRA, LEPOA ETA BURUA

Bizkarraren osasunerako berariazko masajea, bizkarreko, lepoko eta buruko minak, tentsioak eta espasmoak arintzeko. (Ordu bat)

3. FACIAL PREMIUM

Kanpoko estresaren eta kalteen aurkako defentsarik onena.

Aurpegiko tratamendu pertsonalizatua.

(Ordubete eta hamabost minutu)

4. ZETAZKO LARRUAZALAREN ERRITUALA

Berritu eta hidrata ezazu sakon zure aurpegiko eta gorputzeko larruazala.

Esfoliazioa, te berdearen gatzekin, eta hidratazio sakona.

(Ordubete eta 15 minutu)

5. NIRETZAKO DENBORA

Zetazko Larruazalaren Errituala + Aurpegi eta Burezureko masajea.

(Bi ordu)

* KONTSULTATU PREZIOAK SAREAN



Beraien ezaugarri bereizgarriak:

*Lantaldea osatzen duten profesionalen eskuak.

*30 urtetik gorako jarduna.

*Ordutegi zabala: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan, 09:00etatik 20:00etara

*Donostian, Gros auzoan

*Goi-mailako kosmetika naturala. Massada, Jeevan Ayurveda.

"Hartu arnasa sakon, zure garaia da".



ERRESERBATU

YO. SALUD ESTÉTICA
Bermingham 8, behea

yosaludestetica.com

@yosaludestetica

ARRUABARRENA CLÍNICA

ZURE LARRUAZALA ETA GORPUTZA ZORIONTSU EGITEKO LEKUA, DONOSTIAN.

Denbora asko generaman larruazala itzalita eta batere alaitasunik gabe. Bizitasun txute baten beharrea geunden, baina errespetu handia eragiten zigun gure aurpegitxoetan ezer egiteak. Lagunei galdetu genien ezagutzen al zuten sasoa berreskuratzeko lekuren bat eta... a zer nolako kasualitatea, bat etorri ziren denak: ARRUABARRENA. Hainbat hilabete igaro zen adoretu eta hitzordua hartzeko erabakia hartu genuen arte... "Kontsultatu besterik ez dugu egingo, eta gero ikusiko dugu" esaten genion elkarri...

Egia esan, lehen aldiz harremanetan jarri eta gero, benetako deskubrimendua izan dira guretzat Arruabarrena *sisterrak*; haien esku jarri gara, eta bikainak izan dira emaitzak. Bi ahizpa daude Arruabarrena Klinikaren atzean, Cristina eta Silvia Arruabarrena.

Antiguon dago Klinika, eta aurpegiarako zein gorputzerako tratamenduak aurkituko dituzu.

Gorputz-tratamenduen artean, **VelaShappe**, zelulitisaren itxura hobetzeko eta gorputzaren ingerada murrizteko tratamendua; baita **Coolsculpting** delakoa ere, haien azkeneko berrikuntza, dietarekin eta kirolarekin ezabatu ezin den gantz lokalizatua kentzeko liposukzioaren ordeko lehenengo aukera. Kirurgiarik gabe. Hotza besterik ez da sentitzen, eta ez du ia batere molestutzen. Saioaren ondoren, ez da errekupeazio-aldirik behar, klinikatik atera bezain laster jarrai dezakezu gure eguneroko bizimoduarekin.

Aurpegi-tratamenduei dagokienez, **peelingez** gain, orbanak, zaintxoak eta gorritasunak kentzea lortzen duten laser ezberdinak aurkituko dituzu, larruazalaren kalitatea eta zimurrak hobetuko dizkizutenak. Azido hialuroniko infiltrazioak, aurpegiko mesoterapiak eta botox-injekzioak ere egiten dituzte.



"Edertasuna artea da, eta guk zientzia bihurtzen dugu"



Ultherapy da beraien azken berritasuna, Ultrasoinuak amerikar FDArekin, ultrasoinuak eta kolagenoa lehengoratzeko prozesu naturala erabiltzen duen kirurgikoa eta inbaditzailea ez den prozedura bakarra, bekainetako, betazaletako, lepoko, paparreko eta eskoteko larruazal lasaia altxatzeko eta tenkatzeko. Espainiara iritsi berria da Amerikako Estatu Batuetan aparteko arrakasta lortu ondoren; modako tratamendu ez-inbaditzailea bihurtu da han.

Ziurtatzen dizuegu benetan zoragarria dela; saio bakarra nahikoa da emaitza ikusgarriak lortzeko eta, gainera, 12 hilabete inguruko iraupena du.

Edertasunaren arloan dauden azkeneko aurrerapenak aurkituko dituzu Arruabarrena Kliniketan. **Ez ezazu gehiago pentsatu, eta hartu hitzordua orain.**

Plus bat: ospakizunen bat baldin baduzu, galde ezazu haien flash tratamenduen inguruan, harrigarriak dira.



Antonio Arzak 3, behea

+34 943 31 30 57

arruabarrenaclinica.com

@arruabarrenaclinica

@arruabarrenaclinica

CIUDAD SAN SEBASTIAN

KATAMARANA



Goza ezazu paseo paregabe batez Donostiako kostan eta badian **"Ciudad San Sebastian"** katamaran eder, moderno eta handian itsasoa zeharkatuz.

Esperientzia berezia da, benetan, eta itsasotik miretsi ahal izango duzu hiria, noiz ahaztu ez duzun erabat bestelako ikuspegiarekin.

Erlaxa zaitetz, eta gozatu badiaren eta kostaren ikusmira zoragarriez, eta eduki ezazu prest zure kamera edo mugikorra, ezin izango baitzara argazkirik egin gabe gelditu, horrenbesteko edertasunaren aurrean.



Ibilbidea: Gure arrantza-portu ederretik abiatuta, Kontxako Badiatik irtengo gara Donostiako kosta ikusteko, ondorengo interes-guneekin:

Oteizaren eskultura/Pasealeku Berriko dikea/Urumea ibaiaren bokalea
Kursaal jauregia/Zurriolako hondartza/Ulia Mendia
Igeldo Mendia/Haizearen Orrazia/Santa Klara uhartea



PLUS BAT:

Aloka ezazu Ciudad San Sebastian katamarana leku pribilegiatu batean bilkura eskusibo bat antolatzeko, eta ez izan zalantzarik, harrituta utziko dituzu zure gonbidatuak.

Zer iruditzen enpresa-batzar bat egiteko edo zure urtebetetzea itsasontzi batean ospatzeko? Inoiz amestu al duzu itsasoan ezkontzea?

Horretarako aukera erraza ematen dizu Ciudad San Sebastian katamaranak; "bai, nahi dut" esateko leku ideala.



ONLINE ERRESERBAK



UDAKO ORDUTEGIA

Ekainaren 15etik irailaren 15era
(biak barne)

Egunero: 12:00etatik 20:00etara
NEGUKO ORDUTEGIA

Irailaren 15etik urriaren 20ra
(biak barne)

Ostiral, larunbat eta igandetan:
16:00etatik 19:00etara

CIUDAD SAN SEBASTIÁN
KATAMARANA CATAMARÁN

CIUDAD SAN SEBASTIAN
Kaiko Pasealekua 14, Donostia



ciudadsansebastian



@ciudad_ss_catamaran



@Catamaranciudadsansebastian



Begi Bistan askatasuna, esploratzea eta abentura da.

Esperientzia eko-turistikoak aire zabalean, ingurumenologo, geologo eta historialariek interpretatuta. Uda honetan ezin zara planok egin gabe gelditu, **etor zaitez Flyschera, eta goza ezazu inoiz ez bezala!, Eta izan zaitez arraunlari egun batez, Orion!**



***Senti ezazu Geoparkea:
Zumaia-Deba-Mutriku***

Geo-ibilbide gidatuak itsasontziz


Lurraren historia itsasotik. Elkarrekin deskubrituko ditugu Flyschak ezkutuan dituen enigmak!

Eko-ibilbide gidatuak oinez

Bizi ezazu Flyscha zapaltzearen, ukitzearen eta sentitzearen esperientzia, gidari espezializatu baten eskutik.

***Kolabora eta parte har ezazu
aztarnarik ez uzteko gure
“EkoErronkan”.***

Urte osoan zabalik!



*Askotariko arraun-jarduerak Orion:
Ur-jardueren Arraunetxe zentroa paregabea da lehenengo
palakadak eman edo uretan erronka berriak bizi izateko.*



Oria ibaiaren jaitsiera kayakez edo SUPez:

Jarduera ezin hobea, paregabeko
zonetan naturaz eta lasaitasunaz
gozatzeko.

Traineruak

Izan zaitez arraunlari egun batez!
Esperientzia ahaztezina bizi izango duzu,
Orioko traineru enblematikoen barruan!

Arraunpotea

Dibertitzea nahi baduzu, hauxe da
zuretzako jarduerarik aproposena:
arraun egin, pintxo-potea, eta algarak
ziurtatuta!

Kayak/SUP/BIG SUP alokairua

*Aukeratu zure jarduera,
partikularra, taldea. eskola-taldea
zein enpresa zaren.*



begi • bistan

EGIN ERRESERBA

Jarduera jasagarriak Geoparkean,
oinez edo itsasontziz, edo arraun-
kayak- eta SUP-jarduerak Orion.

Bakarrik zein lagunekin edo
koadrilarekin etor zaitezke, baita
enpresa- edo eskola-talde modura ere;
guztiontzako aukerak ditugu.

 **ERRESERBA ONLINE**



*“Etor zaitez oroitzapenak sortu
eta inoiz ahaztuko ez dituzun
esperientziak bizi izatera”*



ZUMAIA

Meeting point Flysch: Txomin Agirre pantalana, z/g

ORIO

Arraunetxe, ur-jardueren zona



begi-bistan.com



@begibistan



@BegiBistan.Zumaia.Deba.Mutriku

Igeldo-Orio



Gaur Igeldo mendira igo eta, tipi-tapa, Orioraino joango gara.

Klasikoetan klasikoa den ibilbidea. Erromes ugari ibiltzen da, Donejakue bidean baitago, eta ez dago galtzerik.




Gezi horiak izango dituzu lagun paseo osoan.



Bi aukera proposatzen dizuegu:

1. "Nagi samarrok" **16 zenbakidun autobusa** har dezakezue igoera aurrezteko; Igeldoko kanpinean utziko zaituzte.

 DBus autobusen ordutegiak

2. Ibiltarienok, berriz, Ondarretatik abiatuko gara, eta Igeldoko pasealekutik igoko gara.

Aurrera egin ahala, **Lurdes Txiki eta Leku Ederretik** igaroko gara. Une horretan, Kristobal Balenziaga alderako norabidea hartu behar dugu, Igeldoko erdiguneraino bertaraino eramango gaituena. Han, garai bateko eskola ikus dezakegu, plazan gailentzen den eraikin zuri klasikoa, altxor bikaina.

Orkolaga Aitaren pasealekutik aurrera jarraituko dugu, indarberritzeko gure lehenengo geralekura iritsi arte, **Ekaitz Erretegia**, hain zuzen ere. Ekaitz Erretegira deitzen den arren, gazta-tarta da dituen altxorrik bikainenetakoa bat. Aukera paregabea gozozaleenentzako. Askok diote inguruko gazta-tarta hotzik onena egiten dutela.

Aurrera jarraituko dugu, eta atzera begiratzea gomendatzen dizuegu, Igeldoren eta itsasorantz erortzen den mendi-hegalaren ikusmira ezberdin batez goza dezazuen.

Orio-Igeldoko Parkera edo Piknik-gunera iritsiko gara, atsedean hartzeko leku egokia; iturri bat dago han,

kantinplorak ur freskoz bete eta gure ibilbidean aurrera jarraitzeko.

Metro batzuk aurrerago, bidegurutzte batera iritsiko gara; bi aukera izango ditugu han: errepedez jarrai dezakegu edo, asfaltoa alde batera utzi, eta mendian barnera gaitzke, eskuinaldean gora egiten duen bidexka bat hartuta.

Itsasorako bistak dituen hori hartzea gomendatzen dizuegu; pixka bat luzeagoa den arren, merezi du. Berehala iritsiko gara gailurrera, Kukuarrira. Eta handik, jaisten hasiko gara. Txundigarria da handik Orioko hondartzarainoko jaitsiera. **Itxaspe hotelaren** aurretik igaroko gara bide horretan; maiteminduta utzi gintuen hoteleko igerilekuak.

Behin hondartzara iristen garenean, han dauden txiringitoetako batera joango gara, aperitibo batez gozatzera.

Merezi du Orio ezagutzeak; beraz, osteratxo bat egin dezakegu herriko arrantza-portura. Bisita gastronomikoarekin jarraitu nahi duzenoi, **Bordatxo** taberna, **Xixario**, **The Pass** edo **Katxiña** gomendatzen dizkizuegu.

Zuen irteerari beste etapa bat gehitu nahiko bazeniote, Zarautzeraino iristeko aukera ere baduzue.

Ordu eta hogeit bat minutu beharko dituzue, oinez.



→ 15 km  1h 20 min

Zailtasuna: ertaina

 Nola itzuli: Euskotrenen, Oriotik

 Euskotrenen ordutegia




txakolinaren LURRALDEA

tXAKOLINAREN zale amorratuak garenez, ilusio handia egiten digu artikulu hau idazteak.

Ardo apartsu samar eta txinpartatsu horren bi milioi botila baino gehiago ekoizten da urtean, eta munduko jatetxerik bikainenetara esportatzen da; indarra hartzen ari da egunez egun, baina ez da beti horrela izan. XIX. mende hasieran, baserrietan egiten zen txakolina, autokontsumorako bakarrik.

Gaur egun, Gipuzkoako lurralde historikoa da Getariako Txakolina Jatorri-deituraren eremu geografikoa; 402 hektarea mahasti dago Gipuzkoan, mahats-parretan landatuta batez ere, eta kostaldean dago hektarea horien % 91.

Hondarrabi Zuri mahats zuria da **GETARIAKO TXAKOLINA** egiteko gehien erabiltzen den barietatea.

 Gehiago jakiteko, klikatu artikuluan agertzen diren txakolin-upategi bakoitzaren gainean.



Argazkia: Rezabal



Getaria

ELKANO:

Eitzaga auzoa 24 +34 600 80 02 59

Historikoki erabili izan den artisau-erako prozesuari jarraituz egiten dute txakolina Elkano txakolindegian, baina teknika berriekin. Mahats-mordo bakoitza mimatzen dute, eta kontu handiz zaintzen dituzte xehetasun guztiak; eta hori nabaritzen da, asko gainera, egiten dituzten bi txakolinetan: Elkano eta Juan Sebastian.

TXOMIN ETXANIZ:

Eitzaga auzoa 21 +34 943 14 07 02

Mahats-parretan landatutako 60 mahasti-hektarea, itsasoranzko aldapan. Hondarribi Zuri eta Beltza bariatateak lantzen dituzte, txakolina egiteko mahatsondo tradizionalak biak. Bisita gidatua egiteko aukera eskaintzen du, dastatzeko-saioa barne.

AKARREGI TXIKI:

Txakoli Akarregi Txiki +34 635 73 70 79

Familia-upategia, duela zenbait belaunalditatik grinaz lantzen dituen mahats-sail hauek. Olatu txakolina egiten dute. Bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen dute.



Zarautz

REZABAL:

Itsas-Begi etxea, 628 - Asti Auzoa - Zarautz. +34 943 58 08 99

Leku ikusgarria Zarautzen, itsasorako bistekin. Ezagutu genuen egunean, txundituta utzi gintuen. Mahats-parra altuko sistema tradizionala erabiltzen dute, eta 22 hektareako azalera dute; bi dira txakolin hau definitzen duten bertako bariatateak: Hondarribi Zuri eta Hondarribi Beltza.

TALAI BERRI:

Barrio Talai Mendi, 728 - Zarautz. +34 943 13 27 50

Zarauzko mendi-hegaletan dagoen familia-upategia. Bisita gidatuak antolatzen ditu Talai Berrik, mahastiak ezagutzeko eta txakolina dastatzeko aukerarekin.



Argazkia: Rezabal



Aia-Orio

K5 TXAKOLINA:

Andatza Barreiatua 16 – Aia. +34 943 24 00 05

Kantauri itsasoaren gainean, 300 metroko altueran, zerutik oso gertu dago K5, mahastiz jositako 15 hektareako mendi-hegal ikusgarri eta gaztainondo-, haritz- eta pago-basoz inguratuta. % 100 Hondarribi Zuri mahastiak.

Gaur egun, upategia ez dago jendearentzako irekita.

Bihotzez gomendatzen dizuegu txakolin hau, oso oso zaleak gara gu.

Jar ezazue K5 bat zuen bizitzetan, eta beste modu batera begiratuko diozue bizitzari.

KATXIÑA TXAKOLINA:

Ortzaika auzoa Orio +34 943 58 01 66

Leku magikoa da hau ere eta, txakolina dastatzeaz gain, bertako jatetxean bazkaltzeko aukera ere baduzu. Ekitaldi ikusgarriak antolatzen dituzte; beraz, zerbait antolatzeko asmoa baldin baduzu, leku ezin hobea iruditzen zaigu Katxiña upategia.

2014an sortu zuten, eta hegoaldera begira dauden 8 mahasti-hektareako lursailaren erdian dago, Oria ibaian amaitzen den mendi-hegal batean.



Katxiña



Katxiña

Amasa-Villabona



HIKA TXAKOLINA: Otelarre 40 - Amasa-Villabona. +34 943 14 27 09

Amasa-Billabonan dago, Tolosatik kilometro gutxi batzuetara. Tolosako "El Fronton" jatetxean ezagutu genuen Roberto Ruiz dago egitasmo honen atzean. Berriki sortutako upategia da HIKA Txakolina, eta "pasio eta grina guztia jarri dugu, konpainia onean gozatzeko eginda dagoen txakolin esklusibo, moderno eta dotore bat ekoizteko".

Hika

Hondarribia



Hiruzta

HIRUZTA:

Jaizubi auzoa 266 – Hondarribia. +34 943 10 40 60

Upategia bisitatzeaz gain, terrazan mokadutxo batzuek gozatzeko edo jatetxean bazkaltzeko aukera izango duzue, parrilla eta sasoiko produktuak protagonista direlarik.

SAGARDOAREN LURRALDEA

rain dela urte mordoia, sagardo naturala oso garrantzitsua zen gure lurraldearen ekonomian; horrela, bada, baserri gehienek zuten sagardoa egiteko toleara. Trukerako txanpon gisa erabiltzen zuten sagardoa, foru legetarako baldintza eta euskal arrantzale eta marinelen lagun ona, Atlantikoaren iparraldera bakailao eta bale bila egiten zituzten bidai luzeetan. Gatz eta alaitasun pixka bat emateaz gain, eskorbutoari aurre egiten laguntzen zien sagardoak marineleji; horregatik, super-boteredun ezinbesteko edari bihurtu zen haiantzako. Egunean bizpahiru litro sagardo edaten zuen eskifaia-kide bakoitzak.




Ehunka urte beranduago, sagardotegira joatea da iparraldera egun batzuk igarotzera baldin bazatozte bihotzez gomendatzen dizkizuegun esperientzietako bat, tradizio gastronomiko paregabea baita, eta benetan berezia sagardotegietan sortzen den giroa.

70 sagardotegi baino gehiago dago probintzia osoan; horietako batzuk aktualagoak dira, garai modernoetara gehiago egokituta daudenak eta, beste batzuk zaharragoak, antzina bezalaxe mantentzen direnak. Sagardoa eta sagardotegiak nortasun-elementuak direla esan genezake, tradizio bat, urteroko ezinbesteko hitzordua bertakoontzako, hutsik egin ezin dioguna, eta turistek ere galdu beharko ez luketena.

Urtarrilean hasten da sagardotegi-sasoia "txotx" oihuarekin, eta apirilera arte irauten du; horiek izaten dira sagardotegietan jende gehien biltzen den hilabeteak. Baina lasai, beste sasoiaren batean baldin bazatozte ere, zorionez, urte osoan egoten dira irekita sagardotegi batzuk.





SAGARDOTEGIKO MENUA

Bakailao-tortilla, bakailaoa piper berdeekin, txuleta eta, azken-buruko modura, gazta irasagarrarekin eta intxaurrekin; horixe da sagardotegiko ohiko menua, sagardoarekin bustita, jakina.

Normalean, modu harmoniatsuan egiten dira otorduak, mahai luze bat partekatuz, baina badaude, oraindik ere, zutik jateko antzinako ohiturari eusten dioten sagardotegiak ere.

Sagardotegi-sasoian joaten bazarete, adi sagardozaileen erritualari. Sagardoa kupeletik zerbitzatzen da beti. Sagardotegiko arduradunak txotx oihu egiten duenean, kupela irekitzen du tapoi-funtzioa betetzen duen zotza (txotxa) kenduta (nahiz eta gaur egun kupel gehienek iturritxoak duten), eta ilaran jarri behar zara, zure edalontzia betetzeko txanda iristen zaizun arte.

Ez zaitetz gehiegi animatu eta ez bete edalontzia goraino; zerbitza ezazu pixka bat, horrela kupela ezberdinetako sagardoa dastatu ahal izango baituzu, eta bazkaltzen edo afaltzen jarraitu ahal izateko, non eserita zeunden ere gogoratuko baituzu.

Nahi adina sagardo edan dezakezu sagardotegiko menuaren barruan.

Sagardoaren Sister-ibilaldia

Donostialdea da sagardotegi-kontzentrazio handieneko eremua –Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil–; zona horretan daude sagardotegien % 70, eta inguru horri deitzen zaio “Sagardoaren Lurraldea”, baina probintzia osoan, zona guztietan aurki daitezke sagardotegiak:

Sagardotegiak Top

ASTIGARRAGA

MENDIZABAL

PETRITEGI

IRETZA

SARASOLA

HERNANI

IPARRAGIRRE

URNIETA

ELUTXETA

USURBIL

AIALDE BERRI

LASARTE-ORIA

ARAETA

DONOSTIA

LIZEAGA

CALOGNE

EUSKAL KOSTALDEA

SIDRERÍA IZETA

SIDRERÍA OLA

SIDRERÍA ORDO-ZELAI



📍 Informazio gehiagorako, sakatu sagardotegien izenaren gainean

ZARAUTZ



Txankletak jantzi, kostaldea eta olatuen gainean itzulipurdi ikaragarriak egiten dituzten surflariak miretsi eta zoriontsu izateko lekua.

Paseatzea, egunsentiak ikustea, izozkiak jatea, hondartzaz gozatzea, ezin hobeto jatea eta deskonektatzea.

~ ~ ~ SISAHOLKUAK ~ ~ ~

1- Kanpinerraino paseo bat egitea, pasabidearen amaieran dauden eskailerak igota, **Mollarriraino**. Itsasbehera handia dagoenean, 1874an Zarauzko hondartzan urperatu zen Gustav galeoiaren aztarnak ikusi ahal izango dituzu. Kanpineko terrazan, eska ezazu txuleta-pintxoak, eta prestatu zuk zeuk.

2- Har ezazu bainu bat kala sekretu batean; Mallarriko zamalekutik irits zaitetzke, itsasbehera dagoenean soilik.

3- Pilar plazan eta San Frantzisko kalean poteatzea.

4- Ilunabarrean, **Shelter tabernan** garagardo bat hartzea, itsasoari begira.

5- Dorre berriraino oinez joatea; horixe da Zarauzko diamante zuria.

6- Gozozalea baldin bazara, pasa zaitetz Joseba Arguiñanoren **JA** gozo-dendatik.

7- Tidore Foods da zure tokia, janari goxo eta osasungarriaren zalea bazara; leku benetan politean dago, gainera.


8- Pintxorik eta eguneko menurik onenak aurkituko dituzu **Iruña** tabernan; irribarre handi batekin hartuko zaitu han Marijok.

9-Goza ezazu herriko parrilletako batez.

10- Joan zaitetz **Zarauzko Turismo Bulegora** eta eskura ezazu gure *souvenir* ederretako bat, Zarautz beti gogoan izan dezazun. Surflari estiloko gure giltzatakoak, poltsak, koadernoak "Zarautzen usain goxoa" duen kandela, **ZARAUTZ LOVERS**entzako bakarrik.



TOKI INTERESGARRIAK 

 Zarauzko Turismo Bulegoa

 Euskotren

 Iruña

GETARIA



Gure lekurik gogokoenetakoa munduan. Pertsonaia ospetsuen jaioterria, hala nola mundu-itzulia egiten lehena izan zen Juan Sebastian Elcano itsasgizonarena, eta Cristobal Balenciaga maisuarena.

Zalantzarik gabe, zoriontsu izateko leku paregabea da Getaria.

Hondartza, gastronomia, parrillak kalean, bisiguak, erreboiloak, txakolina, jende jatorra, baita sagu bat ere, San Anton mendia.



TOKI INTERESGARRIAK



Getariako Turismo Bulegoa



Euskotren



Cristobal Balenciaga Museoa



Txoko Getaria



Maruka Gastro

SISAHOLKUAK

- 1- Bisita ezazu **Cristobal Balenciaga Museoa**, eta edizio bereziko gure "sister produktuak" aurkituko dituzu han.
- 2- Zeharkatu **Katrapona pasabidea**, alde zaharra eta portua lotzen dituena, jaurti txanpon bat eta eskatu desio bat.
- 3- Mirets ezazu **San Salvador eliza**, altxor handia da.
- 4- Igo **San Anton mendira**, eta goza ezazu hango bistekin; txundituta geldituko zara.
- 5- Bainatu **Malkorbe hondartza** lasaian, eta har ezazu mokadutxo bat hondartzan dauden bi tabernatxoetako batean.
- 6- Joan zaitetz pintxo batzuk jatera, txakolinez bustita, taberna-ibilbide hau eginez: **Elkano txiki, Maruka Gastro, Itxaspe, Xagu, Politena...**
- 7- Izan zaitetz zoriontsu herriko parrillaren batean: **Elkano, Txoko, Kaia, Iribar, Mayflower, Astillero...**
- 8- Gin Tonica eta delicatessena, portuaren gainean dagoen **Amona Mariaren** terrazan.
- 9- Garagardo alemaniarrek **Aldibier** garagardotegiak, bista ederrekin.
- 10- Gozatu ilunabarraz, **Ketarri** jatetxearen terrazatik.
- 11- Eta ondoren, egin ezazu ibilalditxo bat Getariatik Zarautzeraino, kosta ertzeko pasealekutik, 4 kilometro Kantauri itsaso bete-betean. estado puro.

HONDA RRIBIA


Hondarribia gure eskualdeko xarma handieneko herrietako bat da. Donostian E21 autobusa har dezakezu, aireportura doana, eta 30 minutuan iritsiko zara Hondarribira, parkaleku kezkatu beharrik gabe.



Iristen zarenean, itsaso-ertzetik paseo bat egitea gomendatzen dizugu; Hendaiara ere joan zaitezke txalupatxoa hartuta, eta La France aldean bueltatxo bat egin.

Jarrai ezazu Butron pasealeku osoa kirol-portura iritsi arte; han, ezinbesteko hiru leku gomendatuko dizkizugu.

Ikaragarri gustatzen zaigu **El Curry Verde**, gure begetariano kuttuna, lokal paregabea; ziurtatzen dizugu ez dagoela begetarianoa izan beharrik jatetxe horretan gozatzeko. (Batez besteko prezioa: 20 €).



Basque Taberna, leku bikaina ogitartekoak eta errazioak jateko. Liluratu egiten gaituzte jatetxeko koadrodun mahai-zapieak eta dekorazioak. (Batez beteko prezioa: 15 €). Rodeo Burguer. Hanburgesa zalea baldin bazara, joan zaitez horra. (Batez besteko prezioa: 15 €).

Rodeo Burguer, Hanburgesa zalea baldin bazara, joan zaitez horra. (Batez besteko prezioa: 15 €).

Pintxoak nahiago badituzu, San Pedro kalea da zure kalea. Koloretako etxeei argazkiak egin eta egin ibiliko zara; mundu-kalerik xarmangarrienetakoa da.

Lehenengo ezinbesteko geldialdia: **Gran Sol**. Sar zaitez, eta jarraitu zure instintuari. Gu "Jaizkibel" pintxoaren zale amorratuak gara.

Oso hurbil dago **Itsaspe** taberna jatetxea; hau ere bazkaltzeko ideala, olibondo bat nagusi den terrazatxo zoragarri batekin.

Nahitaezko bisita gure slow bakery kuttunenera: **Amona Margarita**; kafe on batekin eta dituen edozein gozogaizarekin eta ogi apartekin erlaxatzeko leku paregabea.

Alde zaharreraino jarraituko dugu gure ibilbidean; **Etxeberría** tabernan egingo dugu gure lehenengo geldialdia, Obispo hotelaren parean. Aukerarik baduzu, proba ezazu piparren tenpura.

Danontzat Gastrotekako kale bitarteko terraza ere asko gustatzen zaigu. Gazta zalea baldin bazara, hauxe da zure tokia; bestelako jaki goxoak ere aurkituko dituzu.

Jatetxe batean bazkaldu nahi baduzu, bihotzez gomendatzen dizugu **Alameda** jatetxea (ikus ezinbesteko jatetxeen atala), gure kuttunenetako bat da (Batez besteko prezioa: 75 €).

Arroka Berri: Kalitate-Prezio erlazio oso gomendagarria. Apustu segurua. (Batez besteko prezioa: 40 €).

Ausarta bazara, eta abionetan ibili nahi baduzu, deitu **flydonosti**: 633 04 55 60, Instagramen dotore geratuko zara; ura nahiago baduzu, zain duzu **HS2 surf** center eskola.

Eta, amaitzeko, ez zaitez joan Hondarribitik gure leku kuttunenera joan gabe: **Endanea**. Han beti da udaberria. Landare-haztegi hau lurreen dugun zeru zatitxo bat da. Ezinbestekoa!!!



Gorde itzazu helbide hauek



- * El Curry Verde
- * Basque Taberna
- * Rodeo Burger
- * Gran Sol
- * Bar Restaurante Itsaspe
- * Amona Margarita
- * Bar Etxeberría
- * Gastroteka Danontzat
- * Restaurante Alameda
- * Arroka Berri
- * Endanea Garden




Bus E21
Flydonosti
HS2 Surf Escuela



Informazio gehiagorako, sakatu izenaren gainean



BILBO OSO DA ATSEGINA... *eta froga dezaket*

TESTUA ETA ARGAZKIAK ESTI SANTAMARÍA
www.bilbaomola.com  [esti_santamaria](https://www.instagram.com/esti_santamaria)

Cauza bakarra dago Bilbon egotearen plazeraren parekoa dena: ostirala dela eta aurretik asteburu osoa duzula dakizunean gorputz osoan sentitzen duzun zirrara hori.

Imajinatzen al duzu bi plazer horiek batera sentitzea?

Presta zaitez, hurrengo lerroek plazerak dakarren poztasun itzel hori, giro ona eta... gula ekarriko baitzikizute. Zergatik ukatuko dugu, bada?

Kontatu dizute Guggenheim, Isozaki dorreak, San Mames, Arriaga antzokia eta gidaliburuetan azaltzen den hori guztia dagoela Bilbon.

Beraz, ez dizut kontatuko dagoeneko badakizun hori guztia.

Baina, nor naiz ni zuri hori esateko?

Esti Santamaria naiz, **bilbaomola.com** atariaren egilea debozioz, eta copywriterra lanbidez.

Beharbada, erabat arrotza egingo zaizu copywritingaren kontu hori, baina ez nintzateke batere harrizko Mad Men filma ikaragarri gustatu zitzaizula jakingo banu. Gogoratzen al duzu protagonista hitzekin jolasean, halako markak barra-barra sal zezan lortzeko?

Bada, horixe da, gutxi gorabehera, nire lana. Don Draper bezala, baina zorte onekoa.

Azken batean, hura ez da bilbotarra. Eta ni bai. Eta hori ez du aldatuko Don gure lagunak, bere begiradaxoarekin. Jake Mate. Bilbao wins.

Beraz, ba al zatoz nirekin Bilbo horren atsegingarria zergatik den ikustera?

“Nahi dudana da nirekin etor zaitezen Bilbo hozkadaka jatera eta hiriaren esentzia edatera, bilbotar peto batek asteburu perfektu bat planifikatuko balu egingo lukeen bezala. Hiria eta zu, bakarrik, aurrez aurre.”



Ostiral arratsaldean hasiko gara

Utz ezazu zure bidaiia-poltsa hotelean, garagardo batzuk hartzera goaz eta. Baina, txikikeriarik gabe.

Singular tabernan izango nauzu zain, apar-bainu bat hartu behar baitugu.

Singular tabernan, Sabinok eta Lidek zoriontsu egiten gaituzte artisau-erako garagardoaz eta ardo onaz gozaten dugunok. Gainera, gauza oso bitxia lortu dute: sukaldarik ez duen arren, Bilbon ondoen jaten ematen duten tabernetako bat da.

Baina, ez zaitez barran gelditu. Sar zaitez barruraino, tximiniaren parean hegaldun sofak dauden egongelatxo horretara; pub ingelesen itxura du, eta ohiko bezeroen bigarren etxea da.

Honezkeroko gosetuko zinen; goazen afaltzera. Eta japoniar sukaldaritzak ohituta gauden horrekin batere zerikusirik ez duela soberan frogatu duen jatetxe batean afalduko dugu.

Gordeta dugu tokia **Kuma** jatetxean. Egin kasu: erreserba ezazu aldezturik; bestela, gozokiari pa eginda bezala geratuko zara. Jatetxe japoniar bat baino askoz gehiago da Daniel Lomanaren Kuma. Sukaldaritza-esperientzia bat da. Beste kontu bat. Beste maila bat.

Madrilgo Kabuki eta Londongo Nobu jatetxeetan lan egindakoa da Lomana. Gero, Japonian egon zen denbora luzez, hango sukaldaritza eta milaka urteko kultura bertatik bertara ezagutzen eta barneratzen.

Gozatzen hasiko zara arraina barran nola moztzen duen ikusita, eta gozaten jarraituko duzu jatetxetik irteten zarenean ere, ezin sinetsiko baituzu nola lehertu berri den zure aho-sabaian dastatu duzun zapo-nahasketa hori.


Beraz, behar den bezala amaitu nahiko duzu ostirala, kopa eder batekin. Eta hurbil izango dituzu horretarako lekurik onenak:

1. Manu Iturregiaren **Residence**, kilometro askoko itzulginguruan dagoen whisky aukerarik izugarriena duena.
2. **La Mula de Moscú** Mind Shakers enpresako lantaldearen egile-koktelekin.
3. Eta berriena: **Sumerian Club**.

Gozamen batean amaituko dugu ostirala, Bilboko hiri-zabalgunean, eta auzo berean hasiko dugu larunbata ere.



La Mula de Moscú



El Singular



Kuma

Oharra: ez dugu gosalduko. Omenaldi bikaina egingo diogu geure buruari.

Lekua erreserbatuta dugu **Hotel Miró**, bruncherako, Guggenheim parean.

Bilboko gosari guztien ama da Miro hoteleko All day breakfasta. Esan genezake ia gosari-bazkari-askari-afaria dela.

Hobe duzu sabela hutsik iristea, platerean zerbait uztea bekatu larria baita.


Dena etxean egindakoa. Eta gehienak, 0 kilometro produktuak.

Artisau-erako marmeladak, kafe ekologikoa, etxean egindako gozo-gauzak, landako oiloen arrautzak, fruta freskoa, zuku naturala... eta gosari honetan benetako luxua dena: isiltasuna eta atzeko musika.

Benetan diotsut, gosalduek ondoren paseo bat egiteko gogoz egongo zara eta, zorteko zara, pare-parean baituzu pasealekurik onena. Paseo luzea egingo dugu, Guggenheim museoa hasi eta Zazpi Kaleetaraino.



Hotel Miró



Bidean, Abandoibarra osoa, Isozaki dorreak, udaletxea, Areatza eta Arriaga ikusiko ditugu, eta bete-betean sartuko gara Zazpi Kaleetan.

Beste momentu baterako utziko ditugu mahaia eta mahai-zapia, oparoa izan baita gaurko gosaria. Baina ondo baino hobeto sartuko zaizkigu bermuta eta pintxoren bat edo beste.

Eta EZ. Ez gara tabernarik turistikoenetara joango. Benetako tabernetara joango gara. Lehenengo tragoxkatik irribarrea ateratzen diguten horietakoetara:

Ezinbestekoa **Ander Etxea** bermuta eta hiru olibak.

Baita **Taberna Basaras**, ere; egia esan, antxo bizien tenplua da taberna bat baino gehiago.

Eta **Baster**, taberna; prestatutako bermuta zerbitzatzeari gain, berehala egiten dizute aparteko tortilla.

Lepo geratuko zinen, beraz, goazen beste ibilalditxo bat egitera. Oraingo honetan, On Diego Lopez Haroko Kale Nagusira.

Zeure nahierara. Gozo-denda historikoak, Arrese kasu, eta arkitektura bikaina aurkituko dugu. Izan ere, Frank Ghery baino lehen iritsi zen gurera Bilboko bankuaren beaux art estiloa, Foru Jauregiaren eklektizismoa, Txabarri jauregiaren estilo neoflandriarra, Montero eraikinaren estilo modernista...

Eta Diputazioaren ondoko **El Globo**, tabernako txangurro-pintxo dastatzearen gozamina.

Tratu bat proposatuko dizut: jarrai ezazu aurrera, Doña Casilda parkeraino. Hartu arnasa. Behatu ingurua. Eta Euskalduna jauregira iristen zarenean (azkeneko mende-laurdenean Bilbok bizi izan duen eraldaketa txundigarriaren irudi bizia), har ezazu tranbia.

Abandoibarra osoa zeharkatuko duzu, **Erriberako azokaraino**, plan biribila baitut han, larunbata amaitzeko.



Bilbao Zaharra da.

Ardo bat **Txinpum** tabernako terrazan. Kafe edo garagardo bat **Bihotz** tabernan. Nahi duzuna **Marzana 16** tabernan.

Nire betiko auzoa da, eta ezinezkoa da lerro hauetan deskribatzea zer-nolako eraldaketa bizi izan duen azkeneko urteetan.

Afaltzeko gogoz izango zara honezkero, eta lekurik onenean zaude:

- * **Mina** jatetxearen goi-mailako sukaldaritza.
- * **Al Margen** jatetxearen berrikuntza xumea.
- * **Dando la Brasa** jatetxearen errezeta desobeditzaileak.
- * Baita **Demaio** anaien kalabriarra.

Zeuk erabaki behar duzu zenbat gastatu nahi duzun. Edozein modutan ere, gozatuko duzu.

Honaino iritsita, atsedean hartzea izango dugu onena, azken txanpa falta baitzaigu oraindik.



Igande 100% bilbotarra.

Argi eta garbi esango dizut: ezin duzu Bilbotik alde egin, **Charamel Gozotegia** hostopilak probatu gabe. Beraz, hantxe gosalduko dugu.


Ondoren, bilbotar peto ororentzako itzal handikoa den plana dugu: Areatzako lore-azokara eta Plaza Berriko antigoaleko gauzen azokara joatea.

Han gaudelarik, nahitaezkoa da **Gure Toki** jatetxeko txangurru-gofre bat jatea, Unamuno plazara joan eta **Bacaicoa** tabernako barrergorri gozo bat jatea, **Fermín** tabernako gilda bat edo **Baste** jatetxeko tigre batzuk (muskuluak tomatearekin).

Baina ok egin gabe, gaur aparteko bazkaria egingo dugu eta.

Bilboko gure asteburuari amaiera bikaina emateko, **Los Fueros** jatetxean mahai bat gordeta dugu.

Bilboko tabernarik antzinakoena da. 1878az geroztik dago Zazpi Kaleetan. Orain dela urte batzuk, Fernando Canalesek erosi zuen, eta Paul Ibarra jarri zuen sukaldeburu, Etxanobe jatetxeko I+G saila zuzentzen zuen chefa.



Charamel Gozotegia

Eta zer gertatu zen? Bilboko errezetarik klasikoek lehertu, eta berriro harritzen gaituztela.

Nire gomendioa: 'De Bilbao de toda la vida' menua. Errezeta xumez osatutako banketea. Sukalderitza chirenenari egin dakiokkeen omenaldirik onena.

Eta zer hoberik, Bilboko asteburu hau mailarik onenean uztea baino?

Etxera itzultzeko ordua duzu, eta beste pintxo batzuk probatzeko, aurrez inoiz inork aipatu ez dizkizun beste txoko batzuk ezagutzeko eta beren hiriaz, **Bilboz**, harro hitz egiten dizun jende fanfarroi baina maitagarri horrekin harritzeko gogoz geratzeko ordua.

Itzultzeko aitzakiaren bat beti utzi behar dela esaten dute; hortxe dituzu, bada.

Ziur nago berriro elkar ikusiko dugula. Baita zu ere, ezta?



- * **Bar Singular:** Lersundi 2.
- * **Restaurante Kuma:** Ercilla 8.
- * **Residence:** Barraincúa 1.
- * **La Mula de Moscú:** Alameda de Recalde 15.
- * **Sumerian Club:** Lersundi 9.
- * **Hotel Miró:** Alameda Mazarredo 77.
- * **Ander Etxea:** Barrenkale 21.
- * **Taberna Basaras:** Pelota 2.
- * **Baster:** Correo 22.
- * **El Globo:** Diputación 8.
- * **Txinpum:** Muelle de Marzana 14.
- * **Bihotz:** Arechaga 6,
- * **Marzana 16:** Marzana 16.

Gorde itzazu
24 helbide hauek:

- * **Mina:** Muelle de Marzana s/n
- * **Dando La Brasa:** Aretxaga 7.
- * **Al Margen:** Dos de Mayo 18.
- * **Demaio:** San Francisco 10.
- * **Charamel Gozotegia:** Jardines 2.
- * **Gure Toki:** Plaza Unamuno 12.
- * **Bacaicoa:** Plaza Unamuno 2.
- * **Bar Fermín:** Iturrubide 6.
- * **Baste:** María Muñoz 6.
- * **Los Fueros:** Fueros 6.

👉 Informazio gehiagorako, sakatu tabernen izenaren gainean



Miarritze

Donostiatik ordu erdira, badago hiri bat non gustu onak eta dotoretasunak aristokraziaren uda igarotzeko leku bihurtu baitzuten.



Emakume espainiar bat izan zen arrantzale-herrixka hau munduko lekuri dotoreenetakoa bihurtzearen arduraduna, Eugenia de Montijo, hain zuzen ere; oso emakume argia behar zuen, izan ere, Napoleon III.a bere senarra Miarritzeko "grande plage" hondartzaren gaineko aldean jauregi bat eraiki zieziaion konbentzitu zuen, eta hiri eder hori modan jartzea lortu zuen sekula eta betirako.

Miarritze, gainera, surfaren Europako hiriburu historikoa da, Peter Viertel esker; Deborah Kerren senarra zen Viertel, eta 1957an, Miarritzen filmatzen ari zela, bere oholak ekarri zituen Kaliforniatik, eta lehena izan zen euskal kostaldeko (Côte des Basques) olatuen gainean ibiltzen. Horrela, surfa erlijio bihurtu zuen Miarritzen.

Ezinezkoa da Miarritzez ez maitemintzea... hondar finezko hondartzez (6 km) eta ur terapeutikoez, jauretxez, hango txokolatez, herrian egiten den azoka alaiaz, surflariez, hango dendez, pasealekuez, kalez eta hiri ikusgarri hau erabat argitzen duen giro horretaz.

LES HALLES azokan hasiko dugu eguna, ondo jatea gustatzen zaienentzako ezinbesteko bisita.

Produktu bikainak erosi ahal izateaz gain, dastatu ere egin ahal izango dituzu. Gaztak, itsaskiak, ostrak, trufa... Ikuskizun gastronomiko bikaina. Egunero zabaltzen dute, 14:00ak arte. Goza ezazu azokaren inguruan dauden tabernez: **Le Comptoir du Foie Gras**, **Le Bar Jean**, **Les Contrebandiers**, **Café du Commerce...**



Les Halles



Le Comptoir du Foie Gras



Le Bar Jean



INTERESEKO LEKUAK 



Biarritz Turismo Bulegoa

Les Halles

Jarraian, paseatzera eramango zaitugu; mutur batetik bestera paseatuko dugu Miarritzen:

ITSASARGIA

1834an eraiki zuten Miarritzeko itsasargia, itsaso-mailatik 73 metroko altueran. Igo itzazu 248 eskailera-mailak, goza ezazu Miarritzen ikusmira panoramikoaz, eta har ezazu zerbait itsasargiaren ondoko tabernan: **Pavillon du Phare**.

GRANDE PLAGE

Zeharka ezazu Miramarreko hondartza, Grande Plage hondartzara iritsi arte; hondartza ederra da, benetan, marradun olanazko karpekin, eta gaur egun **Hotel du Palais** hotela den bere jauregi inperialarekin. Miarritzeko erdiguneko hondartza da, eta Kasinoaren eta **Le Bellevue** Kongresuen Zentroaren ondoan dago.

ARRANTZA-PORTUA ETA HARKAITZEKO AMA BIRJINA

Xarmangarria da Arrantzaleen Portua. Gaur egun jabetxeak dira XIX. mende amaierako arrantzaleen etxeak, **Chez Albert** esaterako, non itsaskia eta arrain fresko bikaina jan dezakezun. Bazkalostean, joan zaitez Harkaitzeko Ama Birjina agurtzera. Kondairak dioenez, ekaitz beldurgarri batek portura iristea galarazten zion itsasontzi bati. Gaueko iluntasunean, argi miragarri batek bideratu zituen arrantzaleak kostaraino eta, eskerrak emateko, Ama Birjinari eskainitako estatua bat eraiki zuten haitezaren gailurrean. Gaur egun, Gustave Eiffelek eraikitako zubi bat zeharkatuta irits daiteke uhartetxo horretara.

Aquariuma da gure hurrengo proposamena. Eta ondoren, garagardo bat edo gin tonic bat **Olatuan**. Ikuspegi ederra.

KAPERA INPERIALA

Eugenia de Montijo Napoleon III-ren emazteak eskaturik, **estilo erromaniko-bizantziarra** eta hispano-mairua nahasten dituen kapera xarmant hori 1864ean eraiki zen, Guadalupeko Birjina mexikarrari eskainia. **1981ean**, monumentu historikoetan sailkatu zen.

PORTU ZAHARREKO HONDARTZA

Hauxe da Miarritzeko gure lekurik gogokoenetako bat, harkaitzen artean ahokatuta eta haizetik eta olatuetatik babestuta dagoen hondartza txiki batekin. Miarritzeko bale-portu zaharra da, hortik datorkio izena. **L'Arenan** edo **Les Baigneuses** de Biarritz jatetxean bazkaltzea eta itsasoaren gainean esekita dagoen **Eden Rock Cafén** izozki bat hartzea proposatzen dizuegu.

VILLA BELZA


1889an eraikitako etxe hau misteriotsu ageri da ozeanoari begira dagoen harkaitz baten gainean. Kondaira eta istorio asko dago Villa Beltzaren inguruan; besteak beste, hainbat filmen dekoratua izan zela diote. Gaur egun, ikaragarri gustatzen zaigun hondartza bati ematen dio ongietorria:

CÔTE DES BASQUES

Surfa egiten hastea nahi baduzu, hauxe da zure hondartza. Hantxe bertan aloka dezakezu materiala, irakaslearekin edo gabe. Uretatik irteterakoan, **Le Surfing** gomendatzen dizuegu, jatetxe oso atsegina, indarberritzeko aproposa. Jatetxe horren ondoan, ikuspegi ederrak eta surflariei begira erlaxatzeko sofa bikainak dituen taberna bat aurkituko duzue: **Bar de la Côte**.




Pavillon du Phare



Hôtel Du Palais



Villa Belza



Harkaitzeko Ama Birjina



Arrantza Portua



Arratsean, musika eta pikoteoa eskaintzen dizkizun txiringito bat izango duzu zain, eguna alaitasunez amaitzeko: **Etzola Bibi**.

Azkeneko sistertipa kostatik alde egin baino lehen: itsasbeherarekin, oinez irits zaitezke gure beach club gogokoenetako batera; ez du Ibizakoen inbidiarik: **Blue Cargo** da, Ilbarriz hondartzaren parean dago, eta hamakak eta eguzki-oihalak ditu; oinak hondarretan dituzula jan ahal izango duzu, beti baita uda.

Oroigarriren bat eraman nahi baduzu, joan zaitez **Gambetta** eta **Mazagram** kaleetara. Ukitu berezi zoragarria dute kale horietako dendatxo guztiak; eros itzazu alpagata batzuk Les Sandales d'Eugénie dendan, eta estreina itzazu Sainte Eugénie plazako terrazak eta izen bereko kripta miretsiz. Jarraitu **Café Miremonteraino**; 1872ko te-saloi ederra da, bere esentziari bete-betean eusten diona.

Eros itzazu txokolate batzuk Pariès dendan, eta macaron batzuk **Maison Adam** dendan eta, eguna amaitzeko, joan zaitez Miarrizteko erdigunean bertan dagoen **Chez Coco** pizzeriara; mademoiselle Coco Chanelengandik datorkio izena, hantxe josten baitzuen.



Gorde itzazu helbide hauek

📍 Informazio gehiagorako, sakatu izenaren gainean

CHEZ COCO, 5 Rue Gardères

MILWAUKEE CAFE, 2 Rue du Helder

CAFE MIREMONT, 1 bis Place Georges Clemenceau

LE SURFING, 9 Boulevard du Prince de Galles

ETZOLA BIBI, Square Jean Baptiste Lassalle

ARENA BIARRITZ, Place du Port Vieux

L'ALMIRAL, 9 Rue des Halles

CHISTERA & COQUILLAGE, 13 Rue des Halles

LES BAIGNEUSES, 14 Rue du Port-Vieux

CAFE EDEN ROCK, 2-4 Espl. du Port Vieux

OLATUA, Jardins de l'Atalaye

PAVILLON DU PHARE, 60 B Espl. Elisabeth II

MILADY BEACH by BOKADO, Rue du Moulin de Chabiague

BAR DE LA CÔTE, 10 Boulevard du Prince de Galles

BAR JEAN, 5 Rue des Halles

LES CONTREBANDIERS, 20 Avenue Victor Hugo

LE COMPTOIR DU FOIE GRAS, 1 Rue du Ctre

CAFÉ DU COMMERCE, 1 Rue des Halles

MAISON ADAM, 27 Place Georges Clemenceau

PARIÈS, 1 Place Bellevue

BLUE CARGO, 2 Avenue du Lac Bidart

SOBILO, 24 Rue Peyroloubilh (Bicis y Scooters)



BIARRITZ TOURISME Tourist Office and Convention Bureau 1 square d'Ixelles Javalquinto 64200 Biarritz

MIARRITZEKO AKUARIOA



Donostiatik kilometro gutxira dago Miarritzeko Akuarioa, Ama Birjinaren Harkaitzaren parean, 8.000 arrain baino gehiago eta 600 espezie baino gehiagoko izaki bizidunak dituena. Presta zaitez urpeko munduan bidaia liluragarri bat egiteko, Bizkaiko Golkoan hasi eta Indiako Ozeanoraino eta Ozeano Bareraino, Karibetik igarota...

30eko hamarraldiko eraikin monumental honetan, Atlantikoko kostaldeko espezieak deskubrituko dituzu, hala nola olagarroa, itsas zaldiak dortokak eta, gure kuttunenak, horren atseginak eta dibertigarriak diren fokak. Itzulipurdi bat baino gehiago egingo dizue Charliek eta Izarrek. Ikaragarri gustatzen zaizkie bisitak!

“Gogoratu Alizia agurtzeaz, 120 bat cm neurtzen duen eta 100 kilo baino gehiago pisatzen duen dortoka. Lasaia, pinpirina eta erakargarria da Alizia.”


Urmael tropikalaren aurrean, mangladiaren sustraien artean, mirets itzazu ilargi-karangidoak, loro-arrainak eta gitarra-arraiak. Koral-hesiaren aurrean, lilura zaitez itxura sinestezinezko arrain koloretsu harrigarrien aurrean. Sudur luzedun tximeleta-arrainak, kabrarroka hegalaria, aingeru-arrainak, damatxoak, deabru urdinak...

Balet maiestatetsu baterako izen poetikoak!

Bista panoramikoak dituen 1.500.000 ur litroko urmael erraldoian, txundituta geratuko zara barrakudekin, Napoleon arrain xelebrearekin, lehoinar-arraiekin edo itsasoko arrano-arraiekin... Eta dauden 7 marrazo espezieekin! Benetan ikaragarriak dira!

Sisaholkua

Jar zaitez zinema-pantailaren aurrean, “La vida secreta de los atolones” dokumentalean Pazifiko Handiko itsaso-espezie enblematikoenak ezagutzeko. Esperientzia berezia.



Akuarioako gehien gustatzen zaizkigun gauzetako bat foken jatordua da. Galdu ezin duzun ikuskizuna. Plazer handia da, benetan, fokak igerian, jolasten eta, are, lo-kuluxka egiten ikuste.

Gogora ezazu: egunero, goizeko 10:30ean eta arratsaldeko 17:00etan, kanpoko terrazan.



Hainbat jarduera egiten dute urtean zehar, hala nola Aquariumean gaua pasatzeko aukera eskaintzen dute, marrazoen edertasuna miresteko. Esperientzia ahaztezina, zalantzarik gabe.

Jarrai itzazu **Miarritzeko Akuarioa** sare sozialak, espazio zoragarri horretan gertatzen denaren berri izateko.



MIARRITZEKO AKUARIOA

Esplanade du Rocher de la Vierge

+ 33 5 59 22 75 40

aquariumbiarrritz.com

@aquariumbiarrritz

@aquariumbiarrritz

Cité de l'Océan museoa

Miarritzeko Milady hondartzaren ondoan dago Cité de l'Océan museoa.

Ozeanoari eskainitako museoa da; iaz ezagutu genuen, eta ikaragarri gustatu zitzaigun. Esperientzia birtual eta urperatzaile txundigarriak bizi izan genituen han. Itsasoa ezagutzeko modu orijinala eta dibertigarria.

Har ezazu gogoan zer galdu ezin duzun...



Surf Sensation 5D, Ausart zaitetz surf-taula dinamikoa batera igotzera, errealtate birtualeko maskara baten bitartez, Tahitiko olatu urdinetan surfean aritzeko. Hegoaldeko itsasoetako haizea sentituko duzu, ur-zipritzinak aurpegian, eta pozik mugituko duzu gorputza, bideo bat 360°tan ikusten duzun eta surf egiten duzula sentitzen duzun bitartean. Simulagailuari esker, liluragarria da esperientzia. Miarrizetik mugitu gabe, Polinesiarar bidaiazteko modurik onena.

Virtual Surf, Egin ezazu surf Mundaka, Belharra, Teahupoo... eta beste hainbat lekutako olatu ezagunetan. Bihur zaitetz surflari profesionala egun batez! Horrenbeste gustatuko zaizu, ezen taula bat erosteko gogoia sartuko baitzaizu.

Virtual Trip 360°, Egin ezazu igeri urpean, Australiako Koralezko Barreran, eta agurtu itzazu dortokak, izurdeak eta beste arrain asko. Benetako urpekari bat izango bazina bezala gozatuko duzu ur epel horietan, errealtate birtualari esker. Gomendagarria benetan.

Batiskafoa, 4D zinema dinamikoa da, esperientzia TXUNDIGARRI batez gozaraziko dizuten efektu berezi super errealak dituen. Prest al zaude bidai zirrargarri bat bizi izateko? Lotu gerrikoa, abiatzera goaz eta!

700 marrazo gaez, Bizi ezazu benetako urperatze-esperientzia bat. Urpera zaitetz 12 minutuz 360°tan, Fakaravako erreserba polinesiar bete-betean... 70 marrazoko taldearekin!

Laurent Ballesta biologo eta urpeko argazkilari ezagunak zuzentzen du dokumental hau. Itsasoko harrapakari nagusienetako honen ehiza-teknikak ulertzeko aukera ematen duen azterlan ikaragarria.

Goza ezazu esperientzia berezi horretaz, espedizio zoragarri honetako kide izanda. Bizi itzazu zuk ere taldearen estresa, emozioa, zalantzak, barreak eta beldurrak. (Frantsesez)

Atrakzio hauetarako gutxieneko adina: 6 urte.

Seaborg. Ileak harrotzeko prest? Nahi al duzu grabitatearen legea desafiatzeko eta zure mugak probatzeko, Seaborgean? Errealtate birtualeko betaurreko batzuei esker, 4 minutuko urperatze-bidaia egingo duzu, 360°tan. 360° biratzen duen atrakzio bakarra Europan. Ahuspez egingo zara ohartu ere egin gabe! Erabateko dibertsiotik

urdaileko bertigoa sentitzera pasatuko zara. Adrenalina hutsa Seaborgean! **Seaborgerako gutxieneko altuera: 142 cm OZEANO, DENOI AZALDUTA**

Nondik dator ozeanoetako ura? Nola sortzen dira olatuak? Zergatik da gazia itsasoko ura? Zergatik da urdina itsasoa? Nondik datoz enbatak?

Erantzun guztiak aurkituko dituzu Cité de l'Océan museoa.



Sisaholkua

Ez ezazu gal 40 minutuko 3D filma:

Ekain amaiera arte, "Odisea Tortuga" filmaz gozatu ahal izango duzu; dortoka baten begietatik bizi izango duzu ozeanoetako bizitza. Uztailean, berriz, itsas lehoiei buruzko beste film bat izango dute. Haurrei zein helduei gustatzen zaizkie 3D film hauek.



CITÉ DE L'OCEAN MUSEOA

1 Avenue de la Plage, 64200 Biarritz

+ 33 5 59 22 75 40

citedelocean.com

@citedelocean

@citedeloceanbiarritz



Badago jende askok ezagutzen ez duen leku bat, oso atsegina eta lorategi eder batean ezkutu samarrean dagoena, ilunabarra ikusteko eta itsasoari irribarrez begiratzeko ezin hobea. Gure betebeharra da irakurleei leku magikoen berri ematea; beraz, har ezazue gogoan, leku hau benetan izango baituzue gogoko!

Itsasora begira duen ikuspegiari esker, Biarritzeko sunsetik onenak ditu.

Eguerdiak zerbait arina jatea gomendatzen dizuegu, hala nola kinoazko bowl begetarianoak, burrata gazta izokin freskoak, bowl asiarra... Bazkalorduan, edan ezazu bertako "La Superbe" garagardoa -kupelekoa edo botilatxokoa-, Olatua jatetxerako bereziki egindakoa.

Arratsean, jar zaitez eroso terrazan, eta dastatu ardo on bat (Vincent Damestoyk aukeratutako ardo-karta bikaina dute), gazta goxoz osatutako ohol batekin, urdaitegi-produktuekin, Barthouileko izokinarekin, hegaluzearrekin edo Balmeko trufaz zerbitzatzen duten ohol misto goxoarekin batera.

Gozatu dagoen ikuspegiak eta prestatu argazki-kamera, bikaina baita ikuskizuna.



Sisaholkua

Ez zaitez joan Olatuatik, ROFF TOPEan eseri eta bertako gin tonic famatuetakoa bat hartu gabe.

Plus bat: osagai freskoak, eta bertako sasoiko produktuak.



Jarrai itzazu jatetxearen sare sozialak, antolatzen dituen ekitaldi guztien berri izateko.

Udan, ez itzazu gal DJ festa; 18:00etatik 02:00ak arte izaten dira. Plan bikaina.

OLATUA BIARRITZ

Jardins de l'Atalaye, 64200 Biarritz

 ONLINE ERRESERBAK



@OlatuaBiarritz



@olatua_biarritz

APARTURE

APARTURE - ASOCIACIÓN DE VIVIENDAS
DE USO TURÍSTICO DE EUSKADI
*EUSKADIKO ETXEBIZITZA TURISTIKOEN
ELKARTEA*



Aparture elkarteak turismo-erabilerako **700 etxebizitza** baino gehiago du hogei bat enpresatan, Gipuzkoa eta Euskadi osoan.

Euskadiko Turismo-apartamentuen **APARTURE** elkarteak Euskadin kalitatezko ostatu-eskaintza eskaintzeko egunez egun lan egiten duten turismo-erabilerako etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresen konpromisotik sortu zen.

 www.aparture.com



AIZLUR

Sektorean 15 urte baino gehiagoko jarduera profesionalarekin, esperientzia da gure bermea; horrela, bada, Salerosketetan eta Errentamenduen Kudeaketa eta Aholkularitza Integralean gehien espezializatutako Gipuzkoako enpresetako bat da AIZLUR, baita opor-etxebizitzaren alokairuan ere.




ASTON&WOLF BILBAO

Gama altuko turismoko higiezinaren kudeaketan adituak gara. Gure esperientziari esker, jabeek % 25-% 50 diru-sarrera handiagoak eskura ditzaten lortzen dugu. Baina aparteko diru-sarrerak lortzea ez da dena; abantaila nagusia da kudeaketa integralaz arduratzen garela, jabeek, lehenengo unetik bertatik, atsedean har dezaten eta ez dezaten izan ezertaz arduratu beharrik.




BASQUENJOY HONDARRIBIA

Basquenjoy Hondarribia enpresan, egonaldi labur eta ertaintetarako etxebizitzaren alokairua kudeatzen dugu Hondarrribian. Etxebizitza aukera handia dugu, bezeroak izan dezakeen edozein behar ase ahal izateko. Pertsonalki eskaintzen diegu arreta gure bezeroei, Hondarrribikoak baikara eta bertan bizi baikara; horri esker, haien esanetara gaude, edozein zalantza, kontsulta, aholku edo zerbitzu behar dutenerako.



ALWAYS EASY

Always Easy Donostian dagoen enpresa gaztea da, eta xarmadun apartamentu ugari eskaintzen ditu, kalitate-irizpide zorrotzei jarraituz aukeratutakoak. Gure helburua da bezeroa gustura senti dadin eta egonaldiaz ahalik eta gehien goza dezaten lortzea. Bezeroekiko tratua eta hurbiltasuna gustatzen zaigu; horregatik, beti egoten gara prest bisitatzeko lekuak, funtsezko gune gastronomikoak, jarduerak... eta beste gomendatzeko, azken batean, beharrezko tip guztiak, oporrak ahaztezinak izan daitezzen.



ATERIAN

Itsasoa da gure paisaiaren eta historiaren protagonista. Senti ezazu arrantzale-herrien zaporea, non protagonismo osoa hartzen duten eskaintza gastronomikoak, txakolinak eta parrillan prestatutako arrain freskorik onenak. Mendi berdez inguratuta dagoen Zarauzko hondartzak udalerraren luzera guztia hartzen du, dituen tolo deigarriekin; mundu osoan da ezaguna Zarautz, dituen olatuengatik eta surf giroagatik. Opor-aloairurako premium etxeak eta apartamentuak eskaintzen dizkizugu, esperientzia horietaz eta gehiagoz goza dezazun, iritsi aurretik arreta pertsonalizatua jasota, gure euskal tradizioan eta kulturen parte har dezazun, bertakoek bezalaxe.



BASQUE STAY

Basque Stay bertako enpresa da, eta kosta osoan era guztietako ostatuak eskaintzen dizkie mundu osoko bidaiariei. Bertako pertsonen osatutako lantaldea osatzen dugu, ondo ezagutzen dugu gure herrialdea eta, horri esker, zerbitzu pertsonalizatu bikaina eskaintzeko moduan gaude, bidaiari bakoitzaren beharretara egokituta. Horregatik, hain zuzen ere, aukera paregabea gara haien etxebizitzak alokatu nahi dituzten apartamentu-jabeentzako.



Informazio gehiagorako, egin klik enpresa bakoitzaren ikonoaren gainean.



BASKEYRENTALS

BasKey Rentalsek Euskadin egingo duzun egonaldirako zerbitzurik onena eskaini nahi dizu. Atsegin handia izango litzateke zure gonbidatzailea izatea eta gure herrialdeko leku eta sekretu guztiak erakustea.

BasKey Rentalsen eskaintzen dizkizugun etxebizitzak goza dezazun pentsatuta daude, erosotasun guztiakin eta behar duzun guztiarekin. Tradizioaren eta modernitatearen arteko nahasketa perfektua dugu, etxean bezala senti zaitezten.



DONOSTIRENTALS

Hurbileko familia-enpresa bat gara, egoitza Donostian duena, turismoa hartzeko bokazio argia, eta Turismo-erabilerako Etxebizitzaren kudeaketan sei urte baino gehiagoko esperientzia duena. Jabeei jarduera arazorik gabe gara dezaten pentsatutako enpresa. Zerbitzu aukera zabala eskaintzen diegu Turismo-erabilerako Etxebizitzaren jabeei, erabateko lasaitasuna eta etekinik handiena bermatzeko.

Lizentzien eta baimenen kudeaketa, dekorazioa, eraberritze-lanak, egonaldi laburreko eta ertaineko ostatu-jardueraren kudeaketa osoa eta, jakina, aurrez aurreko check-in zerbitzua (ostatuan bertan egiten diegu harrera bezeroei), garbiketa, maindireak eta toallak, amenityak, mantenua, etab.



FELLFREE

FeelFree konpainiak kudeatzen dituen oporretarako apartamentuak eta etxeak in situ aukeratu dituzte, kalitate-, diseinu-, kokaleku- eta ekipamendu-irizpide zorrotzei jarraiki. Beraz, gure helburu nagusia da gure bezeroak beren oporraldietan edo negozio-bidaetan etxean bezala senti daitezten lortzea.



FRIENDLY RENTALS

Friendly Rentalsen, kontu handiz aukeratutako apartamentuak ditugu, Donostian: handiak eta terrazarekin, erdigunean eta Kontxako badiatik gertu daudenak, argitsuak eta bista ederrekin, familientzako paregabeak, edo bikote-ihesaldi baterako perfektuak... Bilatzen duzuna bilatzen duzula, Friendly Rentalsen aurkituko duzu! Gure apartamentu guztiak daude erabat ekipatuta, etxean bezala senti zaitezten, eta hiria zuen erara ezagut dezazuen.



Informazio gehiagorako, egin klik enpresa bakoitzaren ikonoaren gainean.



FOREVER RENTALS


Forever Rentalsen, logela bat eta lau logela arteko turismo-apartamentu eta etxebizitzaren aukera zabala eskaintzen dugu. Donostian, Madrilan eta Bilbon kudeatzen ditugu alokairuak, hirietako erdigunean beti. Egondaldi ahaztezina izateko erabat ekipatuta daude, gustu bikainez apainduta, bezeroa etxean bezala senti dadin bere oporraldietan edo negozio-bidaian. Gure webguneak hiru hirietan ditugun ostatuen erabilgarritasuna ikusteko eta erreserba modu errazean egiteko aukera ematen du.



GALARENT


Galarent enpresak kudeatzen dituen ostatuak kalitateari dagozkion kontrol zorrotzetan oinarrituta aukeratu dira, gure bezeroek egonaldi ahaztezina izan dezaten bermatzeko. Zona lasai batean, hiriaren erdigunean zein hondartza ondoan ostatu hartu nahi baduzu, opor zoragarri batzuek gozatzeko aukera ezberdinak aurkituko dituzu gurean.






IBERORENT

Donostian egoitza duen agentzia bat gara eta, 2007az geroztik, egonaldi laburreko eta ertaineko opor-apartamentuen alokairuan espezializatuta gaude. Etxebizitza aukera zabala eskaintzen dugu hiriko zonarrik onenetan, erabat jantzita eta prezio lehiakorretan.



LOCAL RENTSS

Local Rentss gure herria eta kultura maite dituen bertako jendez osatutako enpresa da. Donostiako eta inguruko kostaldean alokatzeko eskaintzen ditugun opor-apartamentu guztiek dituzte erosotasun eta zerbitzu onenak. Oporretako alokairu hutsetik garago joaten saiatzen gara eta, nahi duenarentzako, eskaintzen dugun arreta pertsonalatuaren bitartez, "bertako" herritar gisa, etxean, senti dadin lortzen dugu.



OLDTOWN

OldTown enpresak bost apartamentu ditu Donostiako alde zaharrean.

Familia-proiektu bat da, gure egunerokotasuna aldatu eta gustuko dugun horretan lan egiteko aukera eman diguna. Vietnam iparraldeko Hmong gure familiari dagozkie apartamentuen izenak. Laochain, Sa Pa eskualdetik gertu, hotel txiki bat eraikitzeko proiektuarekin eta prestakuntza-proiektu batekin lotuta dago Oldtown. Hotel horri esker, Hmong neskato batzuk prestatu egingo dira eta, horrela, turismoaren sektorean lan egin ahal izango dute, bidezko baldintzekin eta duintasunez.



SANSEBASTIAN FOR YOU

Leku xarmangarria eskainiko dizugu, egonaldi bikaina izan dezazun; gainera, hiriari buruzko informaziorik osoena emango dizugu, gastronomiari buruzkoa batez ere.

Zuek gozaten ikustea da gure benetako pasioa.



Informazio gehiagorako, egin klik enpresa bakoitzaren ikonoaren gainean.



SWEET HOME

Zure oporraldietarako oso bestelako ikuspuntua eskaintzen dizugu: lau izarretako hotel baten erosotasuna eta tokiko benetako esperientzia konbinatzea, Donostiako sekreturik ezkutukoena ezagut ditzazun. SWEET HOME opor-alokairu bat erreserbatzen duzunean, geu arduratzen gara guztiaz. Arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, zure egonaldia berezia eta ahaztezina izan dadin.



SMILING RENTALS

Smiling Rentals Hondarribian sortu zen 2016an, bidaiarien behar berriei erantzuna emateko helburuz: bertako jendearekiko harreman hurbilagoa. Smiling Rentalsek zure esku jartzen du erabat ekipatuta eta jantzita dauden etxebizitzak alokatzeko zerbitzua, baita aparteko zerbitzu aukera zabala ere, etxean bezala senti zaitezten.

Maitasunez eta arretaz prestatzen ditugu etxebizitzak, herriari buruzko gomendiorik onenak ematen dizkizugu, eta beti gaude zure zalantzak argitzeko prest. Zure egonaldiaz ahalik eta gehien goza dezazun da gure helburua. Ongi etorri!






THE RENTALS COLLECTION

“Zure oporraldiez lasaitasunez goza dezazun da gure lehentasuna. Gure apartamentuetako bat erreserbatzen duzunean, sektorean eta gure herrian erreferentea den konpainia batean erreserbatzen ari zara. The Rentals Collectionek arauak betetzeko estandar gorenekin bat egiten du. Gardentasunez lan egiten dugu, eta herri administrazioekin lankidetzan jarduten dugu, gure negozioak gizartean dituen inpaktu positiboak maximizatzen. Apartamentu eta txalet aukera bikaina eskaintzen dizugu, hiriko kultura, gastronomia eta txoko guztiak ezagut ditzazun, Donostiako zure “etxetik”.



EUSKADIRA EGITEN DUZUN BISITAN ETXEAN BEZALA SENTI ZAITEZEN LORTU NAHI DUGU APARTUREN.



APARTURE

by SISTERS AND the CITY



Euskadiko Etxebizitza Turistikoaren Elkarteak
Asociación de Viviendas de Uso Turístico de Euskadi

